SEBASTIAN GARCIA TRUJILLO

# J. L. ALVAREZ ENPARANTZA (TXILLARDEGI)

## Existentzialismoa eta Jainkoa: itzalak baino argiak nabarmenagoak

INSTITUTO DIOCESANO DE TEOLOGÍA Y PASTORAL

EDITORIAL DESCLÉE DE BROUWER S.A.

Ekintza honek Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Sailaren laguntza jaso du

FICHA CATALOGRÁFICA

**GARCIA TRUJILLO, Sebastian**

**Jose Luis Alvarez Enparantza: existentzialismoa eta Jainkoa: argiak nabarmenagoak itzalak baino** / Sebastian Garcia Trujillo. -- Bilbao : Instituto Diocesano de Teología y Pastoral : Desclée De Brouwer, D.L. 2007

66 p. ; 21 cm. -- (Xirimiri de Pastoral ; 34. Hamar Euskal Literato eta Jainkoa ; 4)

ISBN 84-330-2123-6

1. Dios en la literatura. 2. Alvarez Enparantza, Jose Luis - Estudios y conferencias.

231:821.361

© Instituto Diocesano de Teología y Pastoral - 2007
Plaza Nueva, 4. 48005 Bilbao
Editorial Desclée De Brouwer S.A. - 2007
Henao, 6. 48009 Bilbao

Moldiztegia/Imprime: Lankopi S.A.
Colón de Larreátegui, 16. - 48001 Bilbao

ISBN 84-330-2124-3
Depósito Legal: BI-3424-06

# ÍNDICE


I. AGNOSTIZISMOA ..... 5

II. EXISTENTZIALISMOA ..... 9

III. *LETURIA-REN EGUNKARI EZKUTUA* ELEBERRI EXISTENTZIALISTA ..... 11

IV. EXISTENTZIA VS. ESENTZIA ..... 12

V. EXISTENTZIALISMOAREN ERAGINA ERLIJIO ALORREAN ..... 18
- *5.1. SINESMENAREN DESHELIZAZIOA* ..... 18
- *5.2. GIZA KONTINGENTZIA SUFRIMENDUAREN KLABEPEAN* ..... 21
- *5.3. FIDES QUAE → FIDES QUA* ..... 22

VI. EXISTENTZIALISMOA ETA JAINKOA ..... 26
- *6.1. GALDEREI EUSTEA* ..... 26
- *6.2. NOLA ERANTZUN* ..... 28
- *6.3. ESPERIENTZIAREN BIDEA* ..... 28
- *6.4. SINBOLOEN HITZKUNTZA* ..... 30

VII. *LETURIA-REN EGUNKARI EZKUTUA* SINESMENAREN BIDEAN ..... 33

VIII. KRISTAU EXISTENTZIALISMOA ..... 40
- *8.1. AHOZ ZEIN BURUZ SINESTEA VS. JESUSEN ESPERIENTZIARA HURBILTZEA* ..... 40
- *8.2. HERIOTZA* ..... 43
- *8.3. EXISTENTZIAREN EDO BIZITZAREN BALIOA* ..... 46

IX. ETA HURKOAZ ZER? ..... 50

X. LETURIAREN PROBA ETA PORROTA ..... 53

XI. ONDORIOAK ..... 56

# I. AGNOSTIZISMOA

Jose Luis Alvarez Enparanzak, “Txillardegi”k (Donostia, 1929), *agnostiko*tzat jotzen du bere burua. Erlijiogabetzat ere? Ez naiz galdera horri baietz esatera ausartzen, erlijioa presente egoten baita Txillardegiren literatura idazkirik gehienetan[1].

Hausnarketa horretan abiatu aurretik, bereizi behar ditugu, orokorki bederen, ‘erlijioa’, ‘agnostizismoa’, ‘ateismoa’ eta antzeko kontzepturen batzuk, Txillardegiren erlijioarekiko erlazioa ulertzeko, lagungarriak ez ezik, beharrezkoak ere izango baitzaizkigu.

*Erlijio*rantzako bidean, bi urrats edo maila bereiz ditzakegu: 1.a, ‘misterio’ halako baterantz bultzatu ohi gaituen giza *hutsunea* zein *mina* (‘kontingentzia’ filosofo klasikoen esanetan[2]): “Señor, tu cántaro soy yo / ¿y cuando me rompa?” (Rilke); eta 2.a, ‘halako’ horrekin *erlazioa* zein *lotura*, modu askotara gauza daitekeena: miresmena, beldurra, indiferentzia, antsia edo “angustia de la temporalidad” (Heidegger), babes-nahia[3], *absolutua*ren beharra (Spinozaren ‘natura naturans’ edo Einsteinen Goi-Inteligentzia[4]), errege, epaile, apaiz formapean nagusitu ohi zaigun ‘pertsona’ bat (Yahve,

---

[1] TXILLARDEGI, in Hitza hitz. Txillardegirekin solasean, Elkar, Donostia, 1996, 131. or.: “Ni neu agnostikoa naiz. Egia da frankismoaren garaiko seme naizela, heziketa katolikoa jaso duena, baina ni ez naiz inoiz militante katolikoa izan, ez naiz Acción Católicoa eta horrelakoetan ibili”. (1)

[2] TXILLARDEGI, Leturia-ren egunkari ezkutua, Euskal Idaz-lanak, Euskaltzaindiaren ardurapean, Bilbao, 1957, 117. or.: “Erlijiozkoa da berez gizonaren utsunea, ta ez dauka mundu onetakoaz asetzerik”. (2)

[3] TXILLARDEGI, Leturia-ren egunkari ezkutua, o. a., 120. or.: “Guztiz egokia deritzat onengatik erlijioari, bestegatik ez ba litz ere. Gizonaren elburua Zeruan jarriz, bide hutsa biurtzen du biziera, ta itxaropenak eta lillurak gordetzeko aukera bakarra ematen dio gizonari. Erlijioari eskerrak bizitzatik kanpora joan da gure lorkizuna. Onela jokatuz, erlijioaren sortzailleak zein arten eta noraño sakonki ezagutu zuten gizonaren sustraia neurtzen da”.

[4] JAMMER, M., 1999, “Einstein and Religion”, Princenton University Press, Princeton, New York: “Para Einstein Dios es una Inteligencia Superior que se revela a sí misma en el mundo de la experiencia. Para Einstein la palabra ‘religión’ se refiere a ese profundo a inspirador sentimiento de devoción piadosa, ajeno a toda indoctrinación dogmática. Einstein jamás asistió con regularidad a ningún tipo de servicio religioso” (4)

Jesukristoren Aita, Ala...)[5]. Misterioaren irudikatze aniztun horrek erlijioaren edota fedearen 'edukiak' ezberdinak izan daitezkeela adierazten digu, baita Misterioarekiko (Jainkoarekiko?) 'erlazioak' ere.

Erlijioak gizakiaren *iniziatiba* azpimarratzen ei du; *fedeak*, haatik (latinetik *fido*: fideltasuna, promesa...), alde guztietatik aurreratu eta gainditzen gaituen 'beste' batenganako *konfiantza* nabarmentzen du (beste 'Horren' iniziatiba, beraz)[6]. Konfiantza horrek lau ezaugarri ei ditu: 1.a, ez da soilik arrazoizkoa, giza ahalmen edo zentzumen guztizkoa baizik; 2.a, 'Beste' hori 'pertsona' (analagikoki noski[7]) izan behar da: zelan izan konfiantza pertsona ez den batengan?; 3.a, konfiantzak 'beste' horren bizieran edo portaeran du oinarria[8], sinestunarentzat eredu bihurtzen dena: "Izan bedi (gizakia) gure antzeko" (Has 1 26-27); eta 4.a, Beste orrekiko sinestunen antzekotasuna praktikan edo etikan ageri behar da: "Nire aginduak onartu eta betetzen dituenak, horrexek nau maite. Ni maite nauena, berriz, nire Aitak maite izango du, eta nik ere maite izango dut eta agertuko natzaio berari" (Jn 14, 21).

'Agnostikoa' da gai batez 'ez dakiela' edota 'jakin nahi ez duela' aitortzen duena[9]. Agnostikoek bakarrik *zientzia*ren bidez jakin daitekeena onartzen dute. Agnostiko erlijiosoak ez du Jainkorik ez denik esaten, Jainkoa dela ez demostratzerik, ez onartzerik ez dagoela baizik. Agnostiko erlijiosoen artean bereizketa bat egin daiteke: a) Jainkoari buruzko galdera irekirik uzten dutenak, aurrerako urratsik eman gabe[10], eta b) galdera

---

[5] DHAVANOMY, M., Diccionario de teología fundamental, Ediciones Paulinas, Madrid, 1992, 1139. or.: "La religión consiste en la relación del hombre con algo que él siente que es 'el absolutamente otro', este 'otro' es presentado de muchos modos, como poder, como persona, como realidad absoluta, etc.". (5)

[6] MARINA, J. A., Por qué soy cristiano?, Anagrama, Barcelona, 2005. 112. or.: "Ha habido un deslizamiento semántico curioso y equívoco. Los fieles no son los cristianos. El fiel tiene que ser *Jesús, o Dios, es decir, quien hace una promesa. Así pues, el cristiano lo que tiene que ser es confiado* y 'se dedere in fidem Christi', confiar en la fidelidad de Cristo".

[7] TILLICH, P. "The Idea of a Personal God", Union Review, 1940, 2:8-10: "Einstein rechaza la idea de un Dios Personal (de un Dios con atributos humanos), pero sabemos que el predicado 'personal' puede ser dicho referente a Dios solamente de una manera simbólica o mediante analogía". (7)

[8] Ir 3 7-8. "Ongi ikusia dut herriaren atsekabea eta entzuna haien oihua zapaltzaileen zigorpean, bai ohartu naiz haien oinazeaz. Egiptiarren eskuetatik libratzera etorri naiz eta lurralde honetatik, esnea eta eztia darizkion lurralde zabal eta jori batera igaroaztera".

[9] FERRATER MORA, J., Diccionario de filosofía, Ariel Referencia, Barcelona, 1994, 73.-74. or.

[10] MARTIN VELASCO, J., Vida Nueva, n. 2440, 04.11.25, 9. or. "La indiferencia no es una situación intermedia entre la fe y la increencia, sino la situación de mayor alejamiento en relación con la fe, porque mientras hay ateísmo hay todavía referencia a Dios, aunque sea para negarlo. El indiferente, en cambio, pierde incluso la capacidad de percepción de lo religioso, y la palabra 'Dios' termina por no suscitar ningún eco en él".

horri oportunitaterik ere ematen ez diotenak[11]. Badago *arrazoizko agnostikoa* deritzona ere: Jainkoa *arrazoia*ren bidez ezagutzeari uko egiten diona, baina Jainkoarenganantz beste bideren bat onartzen duena (Kant, adibidez[12]).

Subjektuaren aldetik, agnostikoen artean, hiru jarrera bereiz ditzakegu: 1.a, 'Etsi oneko' agnostikoa edo *agnostiko lasaia* (Tierno Galván[13]), giza mugaketa ontzat hartzen omen duena (estoizismotik hurbil?); 2.a, hilezkortasuna eskuratu guran, Jaungoikoa sinetsi nahi izango lukeen, baina misterioa onartzen ez duen arrazionalismoa gainditzea ezina zaion *agnostiko agoniko* edo *mindua* (Unamuno[14]); eta 3.a, Jaungoikoa *pertsonatzat* errekonozitzen ez duen, baina besarkaezinezko oinarri bat badagoela onartzen duen agnostikoa (Einstein, R. Panikkar...). Agnostizismoaren azken bi modalitateok badute erlijioarekin *espazio komun* bat. *Ateoa*k, haatik, Jainkoa edo 'jainkotiar' (demiurgo) dei daitekeen nor-i edo ezer-i izate, ezagutze edota esperimentatzeari uko egiten dio (zein arrazoiez?: "El ateismo es otra forma de profesión de fe"?[15]).

Sinestunen artean ere, jarrera desberdinak topa daitezke: a) sinesmen adieraziaren eta adierazlearen arteko *egokitzapen* zuzena onartzen duen *sinestun xaloa*, b) sinesmenaren *arrazoizko dimentsioei* lehentasuna ematen dion *sinestun ilustratua*[16], eta c) Jainkoaren ezin-

---

[11] MASIÁ, J., "10 literatos y Dios. Miguel de Unamuno: poética de la sinrazón", Sal Terrae, Abril 2001, 340. or. "Hay cuatro posturas ante las ultimidades: a) no querer reconocer las preguntas; b) resolverlas dogmáticamente; c) desesperar de hallar respuesta; d) buscar incesantemente". (11)

[12] DÍEZ ALEGRÍA, J. M.ª, in Diccionario abreviado de pastoral, Verbo Divino, Estella, 1988, 27.-28. or.: "Hay un agnosticismo que no niega todo conocimiento metaempírico, iluminador de la experiencia y condición de posibilidad de la ciencia, pero que no admite un conocimiento racional, objetivamente válido e intercomunicable de Dios. Esto está en la línea de Kant y de la concepción de los transintelegible de N. Hartmann. Pero Kant concede una primacía a *la razón práctica*, y por esa vía se abre una peculiar *fe* racional en la existencia de Dios". (13)

[13] FERRATER MORA, J., Diccionario de filosofía, o. a., 74. or.: "E. Tierno Galván ha distinguido entre ateísmo y agnosticismo, poniendo de relieve que mientras en el primer caso hay una voluntad de que no exista Dios, en el segundo no la hay; el agnosticismo es, según Tierno Galván, el 'no echar de menos a Dios', lo que equivale a no necesitar más que 'vivir en la finitud' o, si se quiere, en 'este mundo'".

[14] MOELLER, CH., Literatura del siglo XX y cristianismo, IV, Gredos, Madrid, 1960, 174. or.. "(En Unamuno) El conflicto entre una razón que decía 'no' y un corazón que quería decir 'sí' continuó siendo agudo hasta el fin". Ibidem, 187. or. (14)

[15] GONZALEZ FAUS, J. I., Calidad cristiana, Sal Terrae, Santander, 2006, 305. or. (15)

[16] MOELLER, Ch., o. a., 249. or.. "Demasiados creyentes convierten a Dios en la solución automática de todas sus dificultades. Pare ellos Dios es una realidad 'objetiva', a la que se puede llegar mediante una investigación también 'objetiva'". (16)

besarkatuzkotasuna onartzen dituen *bihotzezko* sinestuna[17], Jainkoaren 'lorratzak' usnatu *edo* egiten duen eta segitze horretan bere burua gero eta gizakiago esperimentatzen duena[18]: "Afirmar que Dios no es demostrable (ni en positivo ni en negativo) no es menospreciar a la razón, ni caer en un fideísmo irracional (teista o ateo), sino recuperar la mejor tradición teológica; que entre lo racional y lo irracional esta *lo razonable, que ni excluye a la razón ni se agota en ella. ¡Y esto es lo más humano!*"[19].

Mendeetan zehar, sinestunok sinesmenaren definizioari eta arrazoiaz onartzeari, hots, dogmari (setati?) ekin diogu. Gaur egunean, haatik, -agnostikoek irakatsiak ote?-, sinestun ez gutxik (gero eta gehiagok?) sinesmenaren *ez jakitearena* onartzen dute: "Lo único lógico ante el tema de Dios sería un no saber. Una especie de agnosticismo perpetuo e infinitamente respetuoso, a la vez. ¿Diríamos también que un agnosticismo 'desentendido'? Yo creo que no. Por dos razones: la referencialidad de la razón (la razón humana puede mostrar que ella está como referida a Dios, que es como una pregunta por Él, que parece necesitarle, que Dios ha sido para ella un tema constante; y hasta que el hombre puede comportarse de una manera ética o no ética frente a esta pregunta) y la referencialidad del ser humano"[20].

---

[17]SAN AGUSTÍN: "Si lo comprendes (si lo demuestras, si lo expresas...) ya no es Dios". Er 10 10: "Izan ere, zeure *ahoz* aitortzen baduzu, Jesus Jauna dela; eta zeure *bihotz*ean sinesten baduzu Jaungoikoak hilen artetik piztu zuela, salbatuko zara. *Bihotzez* sinesteak zuzentasuna dakarkigu, eta *ahoz* aitortzeak, salbamena".

[18] MANTERO, M., Equipaje, Meister Eckhart. 15. or.: "Pensar en Dios es marchitarlo. Huélelo". ESTRADA, J. A., La pregunta por DIOS, Desclée de Brouwer, Bilbao, 2005, 408. or.: "En la práctica, la religión como todo saber, se legitima en función de la promoción del hombre, por los frutos que ofrece en la línea de la persona".

[19] GONZÁLEZ FAUS, J. I., "Los grandes temas en la teología de la liberación", in El factor cristiano, o. a., 224.-225. or.

[20] Ibidem, 224. or.: "Nunca se repetirá bastante que de Dios no se puede hablar bien. Que Dios es absolutamente indecible e impensable. Que todo nuestro lenguaje sobre Él contiene más mentira que verdad. Y no sólo no puede ser dicho. Tampoco puede ser pensado correctamente". (20)

# II. EXISTENTZIALISMOA

Txillardegik, bere lehen eleberrian, existentzialismoaren uhinean sartzen gaitu, existentzialismo erlijiosoan batik bat, eta segidan (beste idazki zein eleberrietan?) agnostiziosmoan ere bai: "*Leturia* idatzi nuenean oraindik kristau *existentzialista*tzat nuen neure burua..., eta segidan, ezari-ezarian, *agnostizismora* jo nuen"[21].

Existentzialismoaren markak argi daude *Leturia-ren egunkari ezkutuan*: a) existentziarekiko *kezka*: "Kezkatzen ez diran izakiekiko bekaitz-giro bat sentitzen dut barnean batzuetan. Aien bakea!" (24); b) "izatearen zoritxarra"[22] edo *pesimismorako joera*: "Nekez azal diteke munduko alaitasuna: osoa ez delako, noski, ez gaitu sakon unkitzen... Zorion-irritsa mundu onetan asetzerik ez dagoela... Frakasoa da munduaren eusle aundiena. Eriotza esan nuean artemein; frakasoa gaur" (74, 81, 102...)[23]; c) oinarri nahikorik gabeko *aukeratu beharra*: "Aukeramenean bai-datza gizonaren izana. Eta ni beldur aukeratzeko" (28). Halaz ere, *Leturia* gehien aztoratzen duten antsiak erlijioari dagozkionak dira. Eleberrigileak Jainkoarekiko kezkaz dihardu ia monografikoki *Leturia...*ren azken kapituluan (Negu, 110.-146. or.). Erlijio existentzialismoaz aritzen da, beraz, *Leturia*, buruen-buruenik. *Kristau* existentzialismoaz? Zer da *kristau* existentzialismoa[24]? Zein alde dago *kristau* existentzialismoaren eta erlijio existentzialismoaren artean?

Aurrera joan aurretik, 'esentzialismo'ari eta 'existentzialismo'ari buruzko eskema bat ekartzea lagungarri izan dakigukeela uste dut:

---

[21] TXILLARDEGI, in Hitza hitz, o. a., 131. or.

[22] TXILLARDEGI, "Bigarren argitaraketa dela-ta, hitzaurre" in Leturia-ren egunkari..., 2. argitalpen, Durango, Leopoldo Zugaza, 1977, 1. or.

[23] TXILLARDEGI, Zazpika, 06.05.28, 4. or.: "Etsia eta era berean bizitzaz beterikoa. Kontrastean bizi al zara?"Ezkor izateak gauza asko egitera narama, beti gauzak hobetzeko asmoz. Existentzialismoaren iturritik asko edaten dut".

[24] TXILLARDEGI, "Bigarren argitaraketa dela-ta, hitzaurre", o. a., 2. or.: "Leturia kristaua zen, geroko Peru Leartzako-az bestaldera; eta nahiz oso heterodoxo izan".

| Esentzialismoa | Existentzialismo agnostikoa → ateo | Kristau existentzialismoa[25] |
|---|---|---|
| Esentzia | Existentzia | Existentzia |
| Mundu metafisikoa ← mundu fisikoa | Mundu fisikoa | Mundua: Jainkoaren Erreinua (Proiektua) |
| Filosofia eskolastikoa | Fenomenologia (Husserl) | Esperientzia-bideak |
| Razionalismoa[26] | Hermeneutika (Gadamer, Ricoeur) | Jainkoaren arrazoi-frogaezintasuna ←→ Arrazoizkogarritasuna[30] |
| Jainkoarenganako arrazoizko bideak[27] | Jainkoarenganzko esperientzia, sentipenak[29]. | Kristoren / (lehen) kristauen esperientzia berregitea |
| Konzeptuak: unibertsalak eta perfektuak | Sinboloak:Zirkunstantziak eta subjetibitatea edo autodefinizioa. | Bihotzaren 'arrazoiak' (Pascal) |
| Jainkoa: Izate hutsa[28], Egia, Egite hutsa edo lehen motorra, Kausa lehena eta azkena. | Jainko heiezina (M. Unamuno) Jainkoa baliorik gabeko hipotesi (Sartre) | Jainko 'jeitsia', 'ezereztua' edo hustua'[31] |
| Gizakia: animalia arrazionala | Heriotzarako izakia (Heidegger). | "Materia biziaren autotraszendentzia" [32]. |
| Gizakia gizarte-animalia da (Aristoteles) | Infernua besteak dira. (Sartre) | Metafisika hurkoa da. (G. Marcel) |
| Arimaren betiko biziraupena | Biziraupenaren nahia eta ezina | Biziraupena Jainkoaren esker ona eta dohainikakoa[33]. |

[25] SARTRE, J. P., "El existencialismo es un humanismo": "Hay dos especies de existencialistas: los primeros, que son cristianos, entre los que yo colocaría a Jaspers y a Gabriel Marcel, de confesión católica; y, por otra parte, los existencialistas ateos, entre los cuales hay que colocar a Heidegger, y también a los existencialistas franceses y a mí mismo. Lo que tienen en común es que consideran que la existencia precede a la esencia, o si se prefiere que hay que partir de la subjetividad". (25)

[26] KIERKEGAARD, S.: "El hegeliano puede acercarse al confesionario y decir:"No sé si soy un hombre, pero he comprendido el sistema'. Yo, sin embargo, prefiero decir: 'Sé que soy un hombre y sé que no he comprendido el sistema".

[27] SCHILLEBEEXCK, E., 90. or.: "Santo Tomas con sus famosas cinco vías, quiso solamente explicar que la fe en la existencia de Dios tiene un fundamento racional, es decir, que es intelegible para los hombres. Se puede, por tanto, hablar de Dios; no es absurdo el discurso sobre Dios, pero esto no es probar la existencia de Dios".

[28] TORRES QUEIRUGA, A., El problema de Dios en la modernidad, EVD, Estella (Navarra), 1998, 25. or.: "Al no tener suficientemente en cuenta la diferencia ontológica, Dios aparecería reducido a ser la causa primera: en definitiva, el
*ens infinitum* al lado o por encima del *ens finitum*, es decir, una realidad (todo lo grande que se quiera) junto a las otras realidades. Será Heidegger quien denuncie con insistencia este hecho".

[29] "Los sentimientos nos ponen en contacto con nuestra existencia de manera más íntima y radical que la razón". (29)

[30] ESTRADA, J. A., Imágenes de Dios, o. a., 45-46. (30)

[31] Flp 2 6-7: "Kristo Jesusek, Jainko-izaerako izanik, ez zion gogor eutsi nahi izan jainkozko bere mailari; bestela baizik, hustu egin zen bere handi-izateaz eta esklabu-izaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez. Gizaki huts bezala agertuz, apaldu egin zuen bere burua, heriotzaraino menpeko eginez, gurutzean hiltzeraino. Horregatik, denen gainetik goratu zuen Jainkoak eta izen guztietan bikainena eman zion, Jesusen izenaren omenez zeruan, lurrean eta lurrazpian, guztien belaunak makur daitezen".

[32] RAHNER, K., "La cristología dentro de una concepción evolutiva del mundo", Escritos de Teologia, V, Taurus, Madrid, 192. or.

[33] MARCEL, G., "La esperanza de sobrevivir se refiuerza en la comunión con los otros", in MOELLER, CH., Literatura del siglo XX y cristianismo, o. a., 318. or.

# III. LETURIA-REN EGUNKARI EZKUTUA ELEBERRI EXISTENTZIALISTA

*Leturiaren egunkari ezkutua* eleberri existentzialista da. Eleberrigileak berak eta kritikoek ere arlo horretan sailkatzen dute: "Orduan Sartrerekiko jaiera nuen, interesa. Eta Unamuno existentzialista ere interesantea zen niretzat; horien bidetik, apalki, zerbait egiten saiatu nintzen[34].

Existentzialismoaren zipriztinak nonahi agertzen dira *Leturia-ren* testuan, hasiera-hasieratik: "Ez dut zorion-arrastrorik sentitu, bere eza ta gabea baizik. Ez dakusat ezta zorionaren bidea ere!!" (24. or.). "Nik bezelako kezkabide ta katramillak al darabilzki ausaz Zerubide'ko neska (edozein) orrek?" (33). "Urduri nago, guztiz urduri (40. or.). "Badirudi obeto ezagutzen dugula Leturia tristea, Leturia zoriontsua baño. Bañan, izan aal zan azken hau? Bestea izan zana eskierki dakigu; alabaña, zoriontsuaren berririk ez (76). "Askotan entzun izan nuen nik zorion.irritsa mundu onetan asetzerik ez dagoela; ta, guziz ere, ta aoz nik ala aitortuagatik ere, zer egin dut etsipen-leze illun onetara ez jausteko? Deus ez" (81). "Etorkizunaren bildur naiz. Nun dago-ta nere irten-bidea?" (81. or.). "Goragaleak ditut!" (101). Halaz ere,'"Negu" delako azken atalean pilatzen zaizkio Leturiari existentziarekiko kezkarik ugarien eta sakonenak, Jainkoari buruz galderak eta erantzunik eza planteatzen zaizkionetan: "Ez dago betetasunik gizona guztiz bete dezakeanik: ezin bestez etorri bear du gerora etsipenak... Baina, Jainkoa?" (118.-119. or.). Izan ere, Jainkoa da, Leturiaren (gizakien) beste kezka guztiak aska ditzakeen erantzun edota erreferentzia bakarra: "Argi ikusi dut gaur, eta biotz-utsunearen sustraiari igarri diot: Jainkoaren egarria da gizonaren zorion-miña" (117. or.).

Jainkoaren egarria diagnostikatuz gero, ur bila abiatzerakoan (ba ote urik izango?), existentzialistei ahalbide bat baino gehiago planteatzen zaizkie: bidea bakarka (Unamuno, Kierkegaard) egiten dugu ala beste batzuekin? Beste horiek, lagunak ditugu (G. Marcel) ala arerioak (Sartre)? Zenbateraino naiz beste gizakien ondorio edota erantzule? "Anaiaren zaintzaile (zaindu-beharreko) ote naiz, bada, ni?" (Has 4 10).

---

[34]TXILLARDEGI, Berria, 04.09.05.

# IV. EXISTENTZIA VS. ESENTZIA

*Jainkoak: "No te di, hombre, ninguna naturaleza, para que te la des a ti mismo". (Pico de la Mirandola, XV. mendean)*

Jainkoarekiko existentzialisten erlazioaz jardun aurretik, existentzialismoaren marra lodiak azaldu beharra dago. Horretarako Joseba Leturia hartuko dut eredutzat. Izan ere, eleberriaren protagonista existentzialismoaren ispilu nabaria da (nabariegia ote[35]), eleberrigileak Leturiarengan korapilatu nahi izan baititu, orrialde gutxitan, literaturgileek eta filosofoek, existentzialismoari buruz, azaldu dituzten ezaugarriak edota joerak.

- Existentzialisten iritziz, gizakiri dagokionez, *existentzia lehenagokoa da esentzia baino*: "La existencia precede a la esencia. El hombre es el único que no sólo es tal como él se concibe, sino tal *como él se quiere*, y como se concibe después de la existencia, como se quiere después de este impulso hacia la existencia; el hombre no es otra cosa que lo que él se hace"[36].

**Jainkoaren egarria diagnostikatuz gero, ur bila abiatzerakoan, existentzialistei ahalbide bat baino gehiago planteatzen zaizkie: bidea bakarka egiten dugu ala beste batzuekin? Beste horiek, lagunak ditugu ala arerioak? Zenbateraino naiz beste gizakien ondorio edota erantzule?**

---

[35] Askotan D. Agirre, esterako, kritikatu dugu haren pertsonaiak 'tipoak' direlako, haragizkoak izan beharrean. Ez ote da Leturia existentzialismoaren tipoa?
[36] SARTRE, J. P., "El existencialismo es un humanismo".

(Egia ote da gizakiok geure burua *guztiz* definitzen duguna? Ez ote dago, gutxi asko, oinarri-oinarritik 'definitzen' gaituen gauzarik? Eta *guztiok* sentitzen dugun muga edota antsia hori?: "El ser humano es contingencia transida de infinitud"[37]... Eta heriotzaren aurreko gizaki guztion arbuioa?: «Lo decisivo no es morir sino saber que se ha de morir. El problema no es cómo la muerte influirá cuando venga, sino *cómo influye* ahora que sé que ha de venir»[38]... eta injustiziaren edo minaren aurreko solidaritatea edota errebeldia? Gauza bat da galdera guztien erantzuna historikoa edota kulturala dela onartzea, eta beste bat gizaki guztiok errealitateraren aurrean, antzerako galdera edota hutsunea sentitzea [hitzak hitz: giza-natura edo esentzia ote?]. Egia ote da 'creer es crear' Unamunok esan zuen bezala?[39]).

- Gizakiok geure burua 'gura dugunaren arabera' egiten (definitzen) dugunez, existentzialistek *gizabanakoa* jotzen dute gizakiei buruzko hausnarketa guztien erdigunetzat; hots, izen abizendun gizabanakoa: Joseba Leturia, kasu, ez gizaki unibertsala, abstraktua edo metafisikoa: "La historia no existe; sólo existen historias"[40] (Unamuno). "Ni, ni, ni. Onatx korapilloa: neu nintzan

**Egia ote da gizakiok geure burua *guztiz* definitzen duguna? Ez ote dago, gutxi asko, oinarri-oinarritik 'definitzen' gaituen gauzarik? Egia ote da 'creer es crear' Unamunok esan zuen bezala?**

[37] GONZALEZ FAUS, J. I., El factor cristiano, o. a., 545. or.
[38] GONZÁLEZ FAUS, J. I., Al tercer día..., o. a., 15. or.
[39] GONZALEZ FAUS, J. I., De 'la tristeza de ser hombre' a 'La libertad de hijos'" (hemendik aurrera. La libertad de hijos), CyJ, 63, 1995, 12. or.: "Sin pretensiones de ser exhaustivos ni mejores, vamos a fijarnos en una triple diferencia (con respecto a 'los otros' seres): "El hombre quiere ser feliz, el animal no necesita querer eso. El hombre se halla programado sólo de una manera genérica e indeterminada, el animal de modo casi totalmente determinado. El hombre tiene conciencia del límite (no mera experiencia directa de él, sino comprensión de él como límite)".
[40] UNAMUNO, M. de, Del sentimiento trágico de la vida: "Ni lo humano ni la humanidad, ni el adjetivo simple, ni el adjetivo sustantivado, sino el sustantivo concreto: el hombre. El hombre de carne y hueso, el que nace, sufre y muere sobre todo muere". "Tengo que encontrar una verdad que sea verdadera para mí... la idea por la que pueda vivir o morir" (S. Kierkegaard).

kontutan euki bear zan bakarra" (136). Horrek esan nahi du, existentzialisten iritziz, 'gizatasuna' edo '*giza natura*' ezer ez dela: "No hay ninguna naturaleza humana en que pueda yo fundarme". Gizaki *guztiei* buruz ezin dezakegu ezertxo ere esan: "Este es el principo del existencialismo. Es también lo que se llama la *subjetividad*".

Egia ei da gizakiok ahalbide eta muga edo kontingentzia 'unibertsal' batzuek markatuak garela, baina are *nabarmenagoa* da, egunez egun, moldatzen dugula gure giza-izaera. Urritasunak urritasun, non dago gizakiok garen azalpenari buruz argi edo egia gehiago, Aristoteles-en 'animal rationale' definizio metafisikoan ala Sartreren aitortza existentzialistan?: "¿Qué significa que la existencia precede a la esencia? Significa que el hombre, o como dice Heidegger, la realidad humana, empieza por existir, se encuentra, surge en el mundo, y que después se define. El hombre, tal como lo concibe el existencialista, si no es definible, es porque empieza por no ser nada. Sólo será después, y será tal como se ha hecho"[41].

- Gizakiaren definitzea (egitea) *kontestu* zehatz batean gertatzen da: "Ta nere 'gaur', nere 'atzo', ta nere 'hemen' gabe, ni ez naiz ezer, asmaketa farregarri ta itsa baizik" (139). Hori dela eta, gizakiek ezin ei diezaiekegu oinarrizkoak zaizkigun enigmei (erlijioa, etika...) *eredu unibertsal* (metafisiko zein esentzialista) baten bidez erantzun: "Toda verdad y toda acción implica un medio y una subjetividad humana. El hombre empieza por existir, es decir, que empieza por ser algo que se lanza hacia un porvenir, y que es consciente de proyectarse hacia el porvenir. El hombre es ante todo un proyecto que se ve subjetivamente. Nada existe previamente a este proyecto; nada hay en el cielo inteligible, y el hombre será, ante todo, lo que habrá proyectado ser"[42].

---

[41] SARTRE, J. P., "El existencialismo es un humanismo". Egia ote da, existentzialista batzuek dioskunez, gizakia 'banakakotasun' hutsa garela? Ikus GONZALEZ FAUS, J. I., La libertad de hijos, o. a., 10. or.: "A mí me gusta hablar del hombre como 'particularidad iniversalizada' edo 'insociable sociabilidad ' (Kant): La persona es particularidad, individualidad irrepetible que no puede ser aplastada; pero la comunidad, la comunión y la universalidad pertenecen a la esencia de la persona".

[42] SARTRE, J. P. (42)

- Kontestu horretan, gizakioi ezina zaigu 'egia' eskuratzea, 'egia' (dela ontikoa zein metafisikoa, dela morala), berez, unibertsala baita, eta existitzen diren gauza guztiak, gizakiok batez ere, *zirkunstantzialak* gara. "Su ser es un constituirse a sí mismo"[43]. Are eta nahasiagoa ere bai, gizakiok ezin baititugu geure errealitateari eragiten dioten *zirkunstantzia guztiak* menperatu[44]. Hori dela eta, gizakiok *arrakastarik gabeko Jainkoak gara* (Sartre): edozein gauza hauta dezakegu, baina ezin dezakegu ezer guztiz eskura. Sisifo bat, zorigaizto bat[45]: "Zertarako nai ditut nik arautasuna ta zentzua, orain arte lozorroa besterik eman ez ba didate? Bere bidez biziaren giarra ausnartzeko gauza egiten ba nau, betor ordu onean erotasuna" (36).
- Eta hala eta guztiz ere, iluntasun horretan, gizakiok, *hautaketak egin behar* ditugu, hautaketarik ez egitea hautaketa egitea baita: "Oarrez, ondo buruaz, aukeratu bear dut nere bidea; bestela Zoria da nagusia, ta atsekabea geienetan bere ekarria" (113). "Badago, alere, arimari buruzko beste zio edo kari bat; eta koxka au dela uste dut. Aukeratu egiten ez du Mikel'ek: bere esku dirau; aukeratzearen ondorioak ez ditu ezagutu, eta onengatik dabil pozjario. Baña, sakonago aztertuz, libra al da? Ez aukeratzea aukeratu du, nere ustez, ta zentzugabekeria da ori. Bere burua engañatzea baño ez... Oarkabean, edo pentsatu gabez, aukeratu du itsutasunaren bidea; ta au da ori: saldukeria, gizonak egin dezakean saldukeriarik galduena" (86)[46].

- Hautatu behar horretan korapilatzen zaigu *giza existentziaren arazoa*: batetik, hautaketak (sinesmenarena, ez sinesnamenarena tarte) egiteko datu *nahikorik ez dugulako*, eta bestetik, gizaki konkretu baten hautaketan, *gizaki guztien* hautaketa biltzen

---

[43] FERRATER MORA, J., Diccionario de filosofia, o. a., 1175. or.
[44] "El hombre no puede desentrañarse a sí mismo" (Kierkegaard). "El individuo contingente se encuentra con la imposibilidad de encontrar una justificación última para la elección que toda persona tiene que hacer" (Heidegger).
[45] MARCEL, G., "Ser creyente como peregrino". MIXTELENA, K., (Leturiaren egunkariari...) "Sarrera-itz batzu", o. a., 14. or.:'"Nolanahi ere, eta aspaldidanik naiz iritzi ortakoa, paradisu galduaren miña daukagu ezer-muiñetaraiño sartua eta beldur naiz ez ote geran beti ibilliko gaur-biarretako munduan *tanquam aduenae et peregrini*, errimiñak uzkurturik dauzkan arrotz eta kanpotarren gisan".
[46] SARTRE, J. P.: "Ciertamente hay muchos que no están angustiados; pero nosotros pretendemos que enmascaran su propia angustia, que la huyen. ¿Que sucedería si todo el mundo hiciera lo mismo¿ Y no se escapa uno de este pensamiento inquietante sino por una especie de mala fe".

delako, nola edo hala guk egindako hautaketek beste gizakiei bidea marka baitiezaiekete: "Asi soy responsable para mí mismo y para todos, y creo cierta imagen del hombre que yo elijo; elijiéndome, elijo al hombre"[47].

- Hautaketa zihurrak egiteko behar horretan, "gizakiaren zehazgabetasun orokorra"rekin (Heidegger)[48] topo egiten dugu, eta hortixe sortzen da gizakien *bizi-larritasuna* edota goragalea: "El existencialista suele declarar que el hombre es angustia" (J. P. Sartre): "Ez dago betetasunik gizona guztiz bete dezakeanik: ezin bestez etorri bear du gerora etsipenak" (118).

- Nahi eta ezin horretan, gizakiok bizitzari *aurre* egin behar diogu: "Mundu onetan, zorionaren billa dabillenak (au da, guziak) ez dauka gelditzerik. Eta geratzen ba da, bereala uztatuko du gelditasunari darraikiona: erio-kutsua. Ibilli egin bear da, ortaz, aurreratu egin bear da, urratsak eman bear dira tai gabe, eriotzaren bazter geldian ez erortzeko. Oni buruz, illargiaz oroitzen naiz: ilbera ez dagoenean, ilgora dago. Ez dauka gelditzerik: goruntz ala beeruntz. Gizonak ere alaxe du barrua" (120). Argiago esanda, mugatua izatearen kontzientziak geure buruari galderak egitera bultzatzen gaitu, baita gauzak egitera ere: "Gaitza izatearen karia: Gizonaren izanak eskatzen ditu nere ustez bidegabekeria ta larrimiña. Auek bukatuko ba lira, edonolako atsekabe ta egarri guziak ase ba litez, zein izango litzateke gizonaren eginkizuna? Onela gizonak berez ibilli bear ba du, dena argizten da. Ibilketa bat da, ortaz, bizitza" (121).

Existentzialistak *modernitate*ko azkenetariko kimuak dira, eta horrexegatik, askoren ustez, modatik pasatuak daude, gaurko gizartea, zentzu askotan, posmodernoa baita, eta posmodernoak, oro har,

[47] Ibidem: "Si la existencia precede a la esencia y nosotros quisiéramos existir al mismo tiempo que modelamos nuestra imagen, esta imagen es valedera para todos y para nuestra época entera. Así, nuestra responsabilidad es mucho mayor de lo que podríamos suponer, porque compromete a la humanidad entera. Todo ocurre como si, para todo hombre, toda la humanidad tuviera los ojos fijos en lo que hace y se ajustara a lo que hace".
[48] FERRATER MORA, J., Diccionario de filosofia, o. a., 171. or.: "En la angustia reveladora (según Heidegger) hay una indeterminación absoluta. Al descender al abismo de su profundidad, el hombre encuentra la angustia".

modernoak baino axolagabeagoko gizakiak izaten ei dira, indibidualistagoak; bizitzarekiko erantzunkizuna baztertu egiten eta kontsumismoari lotuta bizi baitira, asper-asper eginda askotan. Existentzialistak, aitzitik, gizaki arduratsuak dira (arduratsuegiak?), bentzututa agian, baina bizitzarekiko erantzule sentitzen dira eta errealitatea aldatzeko protagonistak izan nahi dute, heroismoraino ere bai, Sisiforen antzerakoak.

Eskema guztietan bezala, laburpen honetan, existentzialismoaren alderik gogorrenak (ezagunenak) azpimarratu ditut. Halaz ere, horretan ere esperientzia bigunagoak ere gerta daitezke: "Como señala ya Louis Lavelle, consistiendo primariamente la existencia en emoción de existir (la cual nos proporciona un acceso al ser), tal emoción no puede ser simplemente reducida a la angustia"[49].

Ez da, haatik, azken hori Joseba Leturiaren esperientzia, Txillardegiren pertsonaia, azken unera arte, bizitzaren oinarriaz kezkaturik agertzen da (are eta bere buruaz beste egiteraino), atsedena edota barruko sosegua topatu ezinean: "Nun daude oñarri sendoak, aietan nik atsedena ar dezadan? Nun dago beren Iturria? Nun zaude Zu?" (123

**Existentzialistak, aitzitik, gizaki arduratsuak dira, bentzututa agian, baina bizitzarekiko erantzule sentitzen dira eta errealitatea aldatzeko protagonistak izan nahi dute, heroismoraino ere bai, Sisiforen antzerakoak.**

[49] FERRATER, J., Diccionario de filosofía, 1177. or.

# V. EXISTENTZIALISMOAREN ERAGINA ERLIJIOAREN ALORREAN

Existentzialistarik gehienak, agnostikoak edo ateoak izanik ere, Jainkoaz arduratu ziren, berronen existentzia eta nolakotasuna haien azterketetako gai nagusienetarikotzat hartzeraino arduratu ere. Hori dela eta, existentzialismoa, oro har, eta existentzialismo erlijiosoa batik bat, probetxugarria zaigu sinestunoi, Jainkoarenganako sinesmena argitu eta bizkortzeko orduan. Baieztapen hori harrigarri irudi dakiguke, existentzialismoa gehien markatu duten filosofoak edota literaturgileak (Nietzsche, Sartre, Heidegger[50]...) ateo aitortuak izan baitziren. Sinestunok onartu behar dugu sinesgabekoengandik Jainkoari buruzko gauza asko ikasi ditugula eta, behin baino gehiagotan kontrakoa gertatzen zaigula sinestun edota teologo askorekin[51].

Existentzialisten sinesmen arloko aportazioen artean, honako hiru hauek azpimarratuko nituzke: 5.1., kristau sinesmenaren des-helenizazioa, 5.2., gizaki modernoaren (batik bat, mendebaldeko eta burgesaren) sufrimenduaz ohartzea, eta 5.3., sinesmen esperientziaren balioa (beharra) nabarmentzea.

## *5.1. Sinesmenaren deshelinizazioa*

"En su significado habitual, la helenización alude sobre todo a una 'forma mental' que piensa las cosas *sólo en términos de naturaleza y no de historia*. Después de Dilthey, de Hegel o de Darwin, éste es uno de los puntos en que la cultura europea moderna más se ha 'deshelenizado'[52]. Kristau sinesmena adierazterakoan, sinestunok,

[50] TORRES QUEIRUGA, A., "Heidegger y Dios"..., o. .a, 191. or.: "Su (Heidegger) postura no es atea ni teísta y su intención es la de situarse más allá del teísmo y del ateísmo".

[51] MARDONES, J. Mª., "Una revisión de la teología polútica", in Recuperar la justicia, Sal Terrae, Santander, 2005, 208.-209. or. (51)

[52] GONZALEZ FAUS, J. I., "Deshelenizar el cristianismo", in Revista Catalana de Teología, 24 (1999) 257-88 eta Calidad cristiana. Identidad y crisis del cristianismo, Sal Terrae, Santander, 2006, 185.-225. or.

mendeetan zehar, greziar kulturaren konzeptuak eta azterbideak erabili, asimilatu, zorroztu eta zabaldu egin ditugu, eta hori ez bakarrik greziar/erromar enborrekoak garenon artean, europarren kolonizazio kulturalagatik (ez gutxitan"'manu militari' edota eskumikuaren mahatxupean egina), greziar zein erromar kuturarekin zer ikusi ez duten herritarren artean ere bai. *Urbi et orbi*.

Greziar/erromar kulturan, kristau sinesmenaren inkulturazioa arazotsua izan zen (Pedroren eta Pauloren arteko lehen tirabirak), baina ausarta eta probetxugarria, kultura klasikoa edota filosofia eskolastika nagusiak (bakarrak?) izan ziren mende luzeetan zehar. Probetxugarriak, alde batetik, sinestunek gizarte zibilaren filosofia eta lengoaia bereganatu zutelako (inkulturazioa), eta bestetik, greziar filosofiak berez 'esangaitza' izaten den sinesmenaren adierazpenari sistematizazioa ekarri ziolako. Filosofia klasikoa gastatu zenean, haatik, (1875 urtearen inguruan, Niestzche-ren eraginagatik, batik bat[53]), kontuak alderantziz jarri zitzaizkigun, nahiz, elizak (batez ere, katolikuak) eta teologoek eskolastika eskemei eusten jarraitu zuten (komodidadeagatik? insolentziagatik?), maiz pekatu edota heresia mehatxuak erabiliz, beste jarrerak (edo azalpenak) defenditu zituztenen kontra. Gizartearen eta sinestunen arteko filosofia etendura kaltegarria gertatu zaigu: batetik, sinestunen eta filosofoen diskurtsoak elkarrengandik aldendu dituelako, eta bestetik, gaur eguneko ezagutza edo jakitea filosofia klasikoaren eskemari gero eta zailago egokitzen zaiolako.

Helenizazioak utzi dizkigun eragozpenen artean, honako hauek aipa ditzakegu[54]:

1. 'Egiari' (esentziari?) eman diogu garrantzi gehiago 'bizitza'ri (existentziari) baino, "a la larga irá convirtiendo el cristianismo en

[53] HEIDEGGER, M., "La frase de Nietzsche 'Dios ha muerto'": "Con Nietzsche la metafísica se ha privado hasta cierto punto a sí misma de su propia posición esencial, ya no se divisan otras posibiliddes para ella. Tras la inversión efectuada por Nietzsche, a la metafísica sólo le queda pervertirse y desnaturalizarse".

[54] GONZALEZ FAUS, J. I., "Deshelenizar el cristianismo", o. a., 193. or.: "Porque quizá muchas de las grandes críticas de la modernidad al cristianismo (desde Nietzsche hasta Marx o Pohier) son, en realidad, críticas a su helenización, es decir, a esa 'primacía de la sabiduría acerca del ser de Dios' frente a 'la experiencia confiada del amor de Dios'". (54)

un *sistema intelectual*, más que en *una vida* o en una llamada a una forma de vida"[55].

2. Ildo horretan, sinesmena 'dogmak'[56] onartzea izan da, lehen-lehenik, eta eliza 'maistra'tzat hartua izan da 'ama' baino lehenago, Itun Berriak agerturiko "Jainko gure Salbatzailearen bihotz ona eta gizon-emakumeenganako maitasuna" (Tt 3 4) bigarren edo hirugarren mailara pasaraziz.

3. 'Giza portaera' edo etika egia abstraktu batetik dedukzio hutsa izan da (zer da argi eta garbitzat aurkezten ziguten gero eta nahasiago azaltzen zaigun 'giza natura'?[57]). Dedukzio horiek 'agindu' formapean nagusitu zaizkigu, Jesusek erakutsitako Jainkoarekin esperientzia errukitsu eta bizigarriaren aurretik: "Larunbata gizkaiaren onerako egin zuen Jainkoak eta ez gizakia larunbataren onerako" (Mk 2 27).

Planteamendu zurrun horren kontra aritu ziren existentzialistak arrazoi guztiaz[58]. Ez ziguten filosofia harria topatu, noski, baina egiatik hurbilago utzi gaituzte, gutxi ez dena, eta Bibliako Jainkoaren esperientzia edo agerpenetik ere bai: "La verdad bíblica es siempre una verdad abierta: no porque sea vaga e indefinida, sino porque, en la Biblia, la verdad siempre aparece acompañada de la Gracia: desde la plegaria del salmista ('La Gracia y verdad se encuentran') hasta la figura de Jesús que el evangelista presenta como 'lleno de Gracia y Verdad'. En este sentido la verdad bíblica es muy diferente de la verdad griega, que pretende ser una apropiación, posesión y dominio de lo real, y que ha convertido a occidente en una de las civilizaciones más avanzadas técnicamente pero también más imperialistas del planeta"[59].

---

[55] Ibidem, 189. or.: "La razón griega (logos) está mucho más enfocada hacia la posesión y el dominio que se consiguen a través de una explicación plena. De lo anterior se deriva una concepción del cristianismo más atenta a la noción de 'verdad' ('la religión verdadera', etc.) que a la de 'Buena Noticia'.
[56] UNAMUNO, M. de, Diario íntimo, Alianza, Madrid, 1970, 183.-184. or.: "Perdí mi fe pensando en los misterios en cuanto dogmas; la recobro meditando en los dogmas en cuanto misterios".
[57] GONZÁLEZ FAUS, J. I., Calidad cristiana, o. a., 312. or. "El concepto de"naturaleza humana' se ha vuelto muy borroso".
[58] TORRES QUEIRUGA, A., "Heidegger y Dios", o. a., 155. or.: "El inevitable endurecimiento de las tradiciones, unido al radicalísimo cambio cultural que vivimos, pide este viaje a las raíces, para"fluidificarlo' todo, desdogmatizándolo e introduciéndolo de nuevo en la circulación del sentido vivo y de la significatividad efectiva. Por ahí apuntaba (además de Heidegger) la postura del último Wittgenstein".
[59] CHOAN SENG SONG indiar kristau teologo katolikoa.

### 5.2. *Giza kontingentzia edo mina*

Errealitateari buruzko *logos*aren nagusitasunetik sortu ohi zaigu giza sufrimenduaren (*pathos*aren) aurrean sorgortasun moduko bat, sufrimendua giza kontingentziaren ondorio teoriko hutsa bailitzan, *arrazoi hutsaren* bidez azal eta mendera (bigun?) litekeena (estoizismoa). Teodizea klasikoaren barruan, sufrimenduari buruzko analisi arrazionala deseroso gertatzen zaigu, errukia ez baitzaio ondo egokitzen 'aldaezina' den Izaki Absolutuari, *quem vocamus Deum*: "El cristianismo occidental ha ido hablando de Dios al margen del sufrimiento, haciendo una teología más cercana a la de los amigos de Job que a la de Jesús de Nazaret, como si aquellos y no éste fueran la 'palabra' que revela verdaderamente a Dios"[60].

Gizakia = animalia arrazionala dela filosofia klasikoaren definizioren kontrara, existentalistek 'haragizko' deskubritu dute gizakiaren izaera, "oinazez ikasia": gizakia *heriotzarako izakia* da (Heidegger), munduan *abandonatua* dago (Nietszche), libre izatera *kondenatua* (Sartre). Egoera latz horretatik sortzen dira giza *angustia*, *goragalea*, *lotsa*, erantzunkizunaren *zama* (Sísifo), *ilusiorik eza* (Sartre), *depresioa*. Gizakia 'kontingentea' dela esaten dugunean, ez dugu bakarrik fisikoki mugatua dela esaten, giza izaeraren muinean, tristezia edo desesperantza halako bat sortzen zaiola ere bai: "Dime también quien soy / y por qué la tristeza de ser hombre". (L. Panero). "El hombre es el 'gozo de sí' en la tristeza de lo finito" (P Riceur).

Tamalez, existentzialistak giza sufrimenduaz mintzatzen diren gehinetan (guztietan?), gizakien (heriotzaren ondorengo) biziraupenarekiko hutsuneaz dihardute, lehen-lehenik, herri aberatsetan bizi diren goi eta erdi mailako biztanlei eragiten diena, batik bat, eta ez herri zein gizaki probreen min edo heriotza fisikoaz (gose eta egarria, gaixotasunak: sida, malaria, emigrazioa...). Existentzialisten ikuspuntua ez da min edo eza fisikoa izaten (Lazarorena, alegia), min 'espirituala' baizik (Epulonarena), bizitzaren 'jaki guztiak' dastatu duen eta beste zerbaiten 'gose' sentitzen duenarena. Baina ezer ez baino hobe da.

---

[60] GONZÁLEZ FAUS, J. I., "Deshelenizar el cristianismo", o. a., 201. or.

Existentzialistei esker, kristau sinestunek berreskuratu ditugu giza esperientziari buruz nahiko hormaturik geratu zitzaizkigun bi esperientzia: lehena, gaixo fisikoaz gain, gizaki guztiak barruko minez iragazita gaudela: «La queja, la revelación de la propia miseria, nace de ser alguien en esbozo, de ser a medias y sobre un abismo"[61]; eta bigarrena, gizakiak edozein motatako minetik ataratzea izan zela Jainkoaren zereginik eraginkorrena (baita sunestunarena ere): "El lenguaje cristiano acerca de Dios perdió muy pronto su sensibilidad hacia el sufrimiento (Gnostikoen eragina?, II mendean K. a.], zeinentzat: "El conocimiento es salvación)"[62]. Ikasgai bi horiek ikasiko bagenitu!

**Existentzialistei esker, kristau sinestunek berreskuratu ditugu giza esperientziari buruz nahiko hormaturik geratu zitzaizkigun bi esperientzia: lehena, gaixo fisikoaz gain, gizaki guztiak barruko minez iragazita gaudela, eta bigarrena, gizakiak edozein motatako minetik ataratzea izan zela Jainkoaren zereginik eraginkorrena.**

## *5.3. Fides quae: esentzia → fides qua: existentzia*

Sinesmenaz jarduterakoan, jakitunek ikuspuntu bi bereizten dituzte: 1., 'fides quae' edo sinesmenaren alde objektiboa edo 'edukia': dogmen zerrenda edo sinesmen 'ontzia' delakoa, eta 2., 'fides qua' edo sinesmenaren alde subjektiboa, sinestunaren erantzuna edota 'esperientzia' adierazi nahi duena[63].

---

[61] ZAMBRANO, M., "Umanumo y su obra" in Unamuno, Debate, Barcelona, 2003, 92. or.
[62] METZ, J. B., El clamor de la tierra, Verbo Divino, Estella (Navarra), 1996, 13. or. (62)
[63] "La fe en cuanto cuerpo de doctrina o conjunto de contenidos intelectuales, es lo que se llama tradicionalmente—*fides quae* (de *fides quae creditur*, la fe que se cree). Por una parte está el sentido de vivir en confianza y abandono en manos de la providencia paternal de Dios. Este sentido considera la fe sobre todo desde el punto de vista de que es una virtud sobrenatural, que es la que tradicionalmente se ha denominado *fides qua* (de *fides qua creditur*, la fe por la que se cree)".

Existentzialistek filosofo klasikoek landutako giza dimentsiorik adierazgarrienak aldatu dituzten heinean, sinesmenaren *edukiak* ere aldatu?, garbitu, argitu egin dizkigute, baita eduki horietara hurbiltzeko *baldintzak* edo jarrerak ere, ez lehenari (edukiari), ez bigarrenari (esperientzari) uko egin gabe, noski, elkarren arteko oreka berriago (egiazkoago?) bat bilatzeko ahaleginean baizik.

S. Kierkeggard-ek erakutsi zigunez, XX. mendearen lehen erdiko kristau teologo edota predikaririk gehienek, ofizialek batik bat, Jainkoaz aritzerakoan, aspaldidanik (II. mendetik edo) lotuegi iraun dute arrazoizko eskemekin. Ez ziren konturatzen, Vatikanokoa[k] tarteko[64], arrazoizko edo eskolastikako bideak agortuta zeudela, edota, onenean, beste motako ahaleginekin osatu beharko zirela: "La lucha por el cristianismo ya no será por un cristianismo como doctrina. Ésa es la confrontación entre ortodoxia y heterodoxia. Debido a las transformaciones sociales y a los movimientos comunistas, se luchará por un cristianismo como existencia. La cuestión fundamental será el amor al prójimo; la atención se dirigirá a la vida de Cristo, y el cristiano deberá ocuparse fundamentalmente de conformar su vida a la del Maestro. El mundo está harto de consumir esa masa de filfas y bambalinas con las que se había asegurado que la cuestión central era que el cristianismo siguiera siendo un cristianismo de doctrina. La indignación en todo el mundo grita: 'Lo que queremos ver son hechos'"[65].

Ildo horretan, XX. mendeko bigarren zatiko teologoak eta, berauen harira, sinestun ez gutxi: a) protestanteen artean, hobeto gordeta zegoen *subjektuaren inplikazioari* ('pro me') gero eta garrantzi gehiago ematen hasi ziren, eta, era berean, b) filosofi eta literatur zirkuluetan, existentzialismo sortu berriari esker, sinestunen *esperientziari* ere bai: "¿Qué significa todo esto? En primer lugar, que la revelación de Dios en Jesús no puede buscarse en una Biblia infaliblemente inspirada (SG, mucho menos, en una Summa Teologica minuciosamente explicada)... la revelación es la acción salvífica de Dios en cuanto *experimentada* y

---

[64] Pio XII.aren *Humani Generis* entzikikak (50.08.12) existentzialismoa ezin dela dogma katolikoarekin egokitu aldarrikatzen du 'tanto si (el existencialismo) defiende el ateísmo como si al menos *impugna el valor del raciocionio metafísico (porque) rechaza las esencias inmutables de la cosas y no se preocupa más que de la existencia de cada una de ellas*'.
[65] KIERKEGAARD, S., Tagebücher, IV, 1850, 217. or.

expresada"[66]. Horrelaxe, Asteteren katiximan ikasi genuen "fedea ikusi ez genuena sinestea zelako hura"[67], beste era batera ere esaten (eta izaten) ikasten hasi ginen: Fedea sinestun handien sinesmen *esperientzia* bersentitzea edota bersentitzen ahalengintzea dela, behinik behin: Noe, Abrahan, Moises (mitoak mito), Profetak, Job, Nazareteko Jesus (honexena, batez ere) bere ikasleak, santu eta santena ere, eta, nahi izanez gero, Buda edota Mahoma eta halakoena ere bai.

Sinesmenera hurbilketa 'berri' horrek ez nolanahiko aitzindariak izan ditu kristauen tradizioan: San Agustin, San Bernardo, Pascal..., baina, filosofia existentzialistari esker, izugarrizko indarra hartu berri du. Izan ere, existentzialisten eragina (Nietzscheren eta Heideggerena, batik bat, baita K. Jasper, Jean-Paul Sartre, E. Hussel, Gabriel Marcel, Martin Buber, Nikolai Berdiáiev-ena....) nabaria da gaurko kristau teologoen artean, nahiz protestanteak izan: Soren Kierkeggard[68], Rudolf Bultmann, Paul Tillich...), nahiz katolikoak: K Ranher, E. Schillebeekcx[69]...: "La teologia católica posconciliar, que comenzaba a confrontarse con la cultura secular, ha puesto de manifiesto que las fuentes de la reflexión teológica son dos: la revelación y la tradición cristiana, por una parte, y la—*experiencia humana, por otra*"[70].

Txillardegi, idazle existentzialista den aldetik, eta existentzialismoaren barruan, erlijioari ematen dion nagusitasunagatik, probetxagarria zaigu sinestunek ditugun Jainkoaren gaineko kezkak gauzatzeko ahaleginean. Berarekin ados egon ala ez beste gauza bat da. Idazleak *esperientziaren* bide bat eskaini digu, ezkertzekoa dena. Idazlearen beraren esperientzia? Idazleak guztiz asmatua? Batek daki[71].

---

[66] SCHILLEBEECKX, E., Jesús. La Historia de un Viviente, Ediciones Cristiandad, Madrid, 1981, 49. or.

[67] ESTRADA, J. A., Imágenes de Dios, *o. a.*, 45. *or.*: "*La fe no es simplemente creer aquello que no se* ve, lo cual defina la visión doctrinal de la religión, sino una actitud de confianza y de valoración positiva de la realidad a partir de las presuntas vivencias de la divinidad".

[68] KIERKEGAARD, S., Tagebücher, IV, 217. or

[69] TORRES QUEIRUGA, A., EVD, Estella (Navarra), 1996, 74. or.: "El interés fundamental de Schillebeeckx radica en *reformular hoy la experiencia cristiana original*". Repensar la Cristología, o. a., 43. or.; "La teogía actual señala la necesidad de realizar la mediación entre 'la *experiencia* que nos viene dada en la tradición total del gran movimiento judio-cristiano y las actuales y nuevas experiencias humanas de los cristianos y de los no cristianos". (69)

[70] GIBELLINI, R., in E. Schillebeeckx. Soy un teólogo feliz, Sociedad de Educación Atenas, Madrid, 1994, 7.-9. or.

[71] TXILLARDEGI, Berria, 06ko urriak 27, "Nire anaia bikia" deitzu izan dio Txillardegik Joseba Leturiari. MITXELENA, , K., "Sarrera-itz batzu", in Leturia'ren..., 13. or.: "Nik ez dut Txillardegi bakarrik ikusten. Txillardegi eta *Leturia'ren egunkari ezkutua* gizaldi berri baten eta gizaldi orren obren aintzindari gisa agertzen zaizkit".

Hori gutxiena da. Esperientzia horretan guk sentitzen eta esaten ez dakizkigun aldeak nabarmen ditzakegu. Itsumustuka gabiltzan giza mugan (Eg 17, 27), horrelako esperientzia guztiak aberasgarriak ez ezik, beharrezkoak ere izaten zaizkigu: giza bizitzari buruzko oinarriko galderak planteatzen dizkigutelako: "Zertarako eman zait bestela adimenaren argia, billatzeko baizik? Zertarako dut ulermena?" (113), baita Jainkoari buruzkoak ere: "Baiña, Jainkoa?" (119).

**Txillardegi, idazle existentzialista den aldetik, eta existentzialismoaren barruan, erlijioari ematen dion nagusitasunagatik, probetxagarria zaigu sinestunek ditugun Jainkoaren gaineko kezkak gauzatzeko ahaleginean.**

# VI. EXISTENTZIALISMOA ETA JAINKOA

Existentzialismoaren muinean, galdera asko daude, a) giza izateari buruz: heriotzarako izaki hutsa?, b) giza portaerari buruz: zer aukeratu, zergatik?, eta c) Jainkoaren existentziari eta nolakotasunari buruz ere bai: "¿Por qué te escondes? ¿Dónde estás, mi Señor? ¿Acaso existes?... Dí el por qué del por qué, Dios de silencio!" (Unamuno). Fin-finean, haatik, galdera horiek guztiak askatuko ei lirateke, Jainkoari buruzko galderari erantzun zihurrik aurkituko bagenio: "Sufro yo a tu costa, / Dios no existente, pues si Tú existieras / *existiría yo también de veras*". (Unamuno[72]).

## *6.1. Galderei eustea*

*"El problema de Dios sigue presente en el núcleo de todo pensar que—'no se decapita'" ADORNO, Th. W*[73].

Existentzialistek (agnostikoak direnek ere) Jainkoari buruzko galdera *zinez eta minez* hartzen dute. Ildo horretan, existentzialistak ausartak ez ezik, *zintzoak* ere baditugu, zeren, hola gizakiarekin, nola Jainkoaren posibilitatearekin zintzoa izateko, ezinbesteko baldintza baita Jainkoari buruzko galderei eustea[74]: "Jainkoaren bearra da, gizonaren sustraia bera: gizona ukatu gabe, ezin diteke au uka" (121. or.). Existentzialistek, oro har, ez dute erraz galdera hori bazterrean uzten: "Jainkoa... itzegin zaidazu, otoi..." (142. or.) erregutzen du Joseba Leturiak eleberriaren azken lerroetan.

Ugariak dira, *Leturia*-n, Jainkoaren existentziari buruzko zuzen zein zeharkako galderak, baita arlo askotakoak ere: "Gizonaren

---

72 "La oración del ateo". (72)

73 Ikus in TORRES QUERIGUA, A., Modernidad, 8, Isegoria, o. a., 91. or.: "La revelación nace de nuestras preguntas".

74 MARTINEZ GORDO, J., Mística increyente. Agnosticismo cristiano, o. a., 37. or. (74)

larritasunak bukatuko ba lira, edonolako atsekabe ta egarri guztiak ase al ba litez, zein izango litzateke gizonaren eginkuzuna? (121. or.) Zein da gizonarentzat bere etorkizunarena baño buruauste larriagorik? (123. or.). Nun daude oñarri sendoak, aietan atsedena ar dezadan? Nun dago beren Iturria? Nun zaude Zu? (123. or.). Edozein fedek balio al du besteak aña?... Nork garamatzizke, ortaz, egiazko gure elburura? (125. or.). Baiña, zein fede? Edozein? Zein bide? Zein absolutu? (128. or.). Zertarako ainbeste lan eta neke? (129. or.). Nori deituko? (131. or.). Nor naiz ni, bada? (134. or.). Eta zer da maitasuna? (136. or.). Nere onetan egoteagatik, ezetsi al nazake ausaz Jainkoak? (138. or.). Osorik ez daukat nik iristerik. Eta gutxi al da, izan ere, argizai baten bidez Jainkoa badagoena jakitea? (139. or.). Zergatik ari naiz negarrez?" (143. or.).

Giza bizitzaren zentzuari buruzko galderei eustea izan daiteke sinestunok existentzialistengandik ikasi beharreko ez bigarren mailako ikasketa[75]: "Si algo nos han enseñado a temer, son, sin lugar la dudas, las preguntas. Enseguida aprendemos que hay cosas que nunca deben ser puestas en duda. Simplemente, son. Son absolutas. Brotan de una fuente de eterna verdad. Y son verdaderas porque alguien dijo que lo son. Por eso vivimos mucho tiempo con las respuestas de otro. Hasta que las respuestas se vuelven estériles. Lo sé porque yo misma me he visto atrapada en el desierto de la duda y he descubierto que las respuestas eran peores de lo que nunca podrían ser las preguntas"[76].

**Giza bizitzaren zentzuari buruzko galderei eustea izan daiteke sinestunok existentzialistengandik ikasi beharreko ez bigarren mailako ikasketa.**

---

[75] Gogoratzen zarete Asteteren erantzun honetaz?: 'Eso no me lo preguntéis a mí que soy ignorante. Doctores tiene la Santa Madre Iglesia que os sabrán responder'.

[76] CHITTISTER, J., M., OSB, Ser mujer en la Iglesia, Sal Terrae, Santander, 2006, 13. or. MOELLER, CH., 65. or.: "La gente moderna no se preocupa ya por este mundo situado más allá de los puramente sensible. Para Unamuno, esta ausencia del sentido 'místico' es prueba de incultura".

### 6.2. *Nola erantzun*

Galdera horiek argitzeko ahaleginean, gizakiok bide askorekin saiatzen gara. *Arrazoiaren gidaritzapean*, batik bat, baina ez ohi dugu, ez inon, ezta inoiz ere, proba nabaririk aurkitu, ezta behin-betikorik ere: "Ningún filosofo que sea razonable y modesto, ha intentado mostrar la causa última de cualquier operación natural. Estas fuentes y principios últimos están totalmente vedados a la curiosidad e investigación humana"[77]

Jainkoari, gizakiari eta munduari buruzko oinarrizko galderak direla eta: zergatik izakia eta ez ezereza (Heidegger)?[78], zergatik ongia eta ez gaizkia?, zergatik maitasuna eta ez gorrotoa? "Nor naiz ni bada, Nola jaio nintzan? Eta nik, ustekabez naizen onek, ezin aukeratzeak, zer du arritzekorik?" (134), modernitateak arrazoimen bakarreko tranpak azaldu zituen[79]. Hori dela eta, modernitateko ez gutxi agnostizismoaren edota ateismoaren lokatzetan trabatuta geratu dira. Besteren batzuk, haatik, existentzialismoren bidez batik bat, "bizitzaren zentzuarekin zer ikusi duen muga-ingurura" (L. Wittgenstein) hurbiltzeko, baztertuta geneuzkan ezagutzerako bide batzuei lehen baino garrantzi handiagoa ematen hasi dira[80]: "Baña ibiltzeko ibilliko al gera?" (122).

### 6.3. *Esperientziaren bidea*

XIX-XX. mendeen tartean, 'susmoaren maisuak' deituriko K. Marx-ek, F. Nietzsche-ek eta S. Freud-ek (hirurak juduak, hirurak ateoak), gizarteari buruzko ezagutzaren oinarriak balantzarazi zituzten. Harrezkero badakigu gizakiaren oinarrizko erabakiak ez direla zientzian edo arrazoian guztiz oinarritzen, '*defini*ezina zaigun halako zoru edo uhin batean baizik. Aurkikuntza horrek eszeptizismora eraman gaitzake, edota, onenean,

---

[77] HUME, D., Investigación sobre el conocimiento humano, 1748. urtea. Ikus Madrid, 1992, 53. or. (77)
[78] Ibidem, 379. or.: "La pregunta de por qué hay algo y no nada sigue siendo la cuestión metafísica por excelencia. El asombro ante la realidad del universo, la toma de conciencia de que hay algo que nos plantea preguntas sigue dándose en la actualidad".
[79] "El proceso de la modernidad ha consistido en cuestionar la adecuación entre el ser y la mente humana, impugnar el fundamento del carácter racional e inteligente del mundo y desconstruir las construcciones epistemológicas y ontológicas creadas por la razón (SG, teórica y/o práctica)".
[80] MARDONES, Recuperar la justicia, o. a., 257. or.: "La razón moderna misma, en cuanto que es consciente de sus propios límites, también se encuentra con'lo otro' de la razón...'la filosofía tiene razones para aprestarse a aprender' de la religión (J. Habermas)".

Heidegger-ek proposatu zigunez, giza *jakitearen berreraikitze batera*, filosofo metafisikoek (Platon-ek, Aristóteles-ek... Hegel-ek, Nietzsche-ek ere) eraiki zutenaz bestelako oinarri baten gainean. Horretarako konzeptuak ('izakia', 'izatasuna' esaterako) edota demostrazioak[81] sortu aurretiko esperientziaren oinarritik berrasi behar dugu "de ahí que su esfuerzo (de Heidegger, del ser humano...) se dirija a) a captar de nuevo la vibración religiosa de la *fysis* presocrática, a sentir el horror del destino *trágico* y a revivir la fuerza numinosa del *politeísmo*", y b) "a llevar a cabo, en el sentido husserliano, una 'reducción' de la conciencia religiosa, rehaciendo su génesis intencional e intentando de algun modo *recorrer de nuevo la experiencia humana de lo divino*"[82].

Eta zer geratzen zaigu 'konzeptuei' aurrea hartzen badiegu? zeinekin topatzen gara? Bada *esperientzia* (existentzia) bezalako guztiz definiezina zaigun zerbaitekin: "Ella es *justamente lo primario,* lo que está al comienzo de todo comienzo; constituye el choque que desencadena los diversos procesos por los que de mil maneras el sujeto toma contacto con el mundo. Por eso cuando se la advierte, ya estaba allí; sólo cabe mirarla cuando ya está presente; y sólo quien tiene una experiencia, puede de alguna manera 'saber' lo que es"[83].

Oinarrizko esperientzia hori *zabala* ei da, baita *irekia* ere[84] eta historian zehar, existentzialisten esaeretan batik bat, 'izen' edota 'aurpegi' askorekin aurkeztu zaigu[85]. Izendatze horretan, filosofoak baino olerkariak adierazgarriagoak izan ohi dira[86]: Osotasuneruntz abiatzen den zen-zaleen *hustasuna*, "un—*no saber* que trasciende toda ciencia" (San Juan de la Cruz)[87], biziraupenaren *nahia* eta *ezina* (M. Unamuno), sakoneruntza(go)ko

---

[81] NIETZSCHE, F., I, 366: "Un Dios que tiene que hacer demostrar su existencia es en definitiva un Dios muy poco Dios, y la demostración de su existencia a lo más que puede llegar es a una blasfemia".
[82] TORRES QUEIRUGA, "Heidegger y Dios: entre el silencio y las mil cualificaciones", in El problema de Dios en la modernidad, EVD, Estella, (Navarra), 1998.
[83] TORRES QUEIRUGA, A., "La experiencia de Dios: posibilidad, estructura, verificabilidad", in Pensamiento, Volumen 55 (1999) Madrid, 35.-69. or. (83)
[84] Ikus LADRIERE, J., "Le destin de la raison eta les tâxhes de la philosophie' in Vie social eta destinée, Gambloux, 1973, 35. or. (84)
[85] TORRES QUEIRUGA, A.,"La experiencia de Dios...", o. a., 38. or. (85)
[86] TORRES QUEIRUGA, A., "Heidegger y Dios, entre el silencio y las 'mil cualificaciones", o. a., 143. or.:'"Heidegger lo expresó admirablemente en el discurso Hörderlin y la esencia de la poesía (1936): es el poeta quien funda lo permanente, quien descubre la verdad última de este diálogo que es el hombre" (*Erläuterungen*, 37).
[87] Hitzez hitz: "quédeme no sabiendo / toda ciencia trascendiendo", in "Coplas hechas sobre un éxtsis de harta contemplación". TAPIES, A., XLSemanal, nº 996,, 29. or.: "La paz es algo que busco todos los días, pero es tan difícil, como el silencio zen".

xurrumurru edota *oihartzuna*: "se oye tan solo una infinita escucha" (J. A. Valente), goruntz garamatzan materiaren *autotraszendentziaren joera* (K. Ranher), inoiz iristen ez zaigun (eskuratzen ez dugun) *osogarritasuna*ren beharra: onartua izatearen gogoa, bikote, semealaba edota taldearen deia, solidaritate edo tendresiara joera: "(benetako) metafísika beste gizakiak dira" (G. Marcel), zerbait ezkuturen (noren? zeren?) *presentziaren sentipena*: "intimior intimo meo" (San Agustin)[88], babesgabetasunaren sentimendua (J. V. Foix: Sol, i de dol), *heriotzarako* deia edo *izakia* (Heidegger)[89], mundura botatako alferrikako *pasioa* (Heidegger eta Sartre), *giza ahuldadea gainditzeko alperrikako grina*: heroi modernoa (Sísifo, Prometeo, Tantalo), "gau iluna" (Lisieuxko Teresa), bestenganako *errukia* (Samariarren antzera), onartua izateko *antzia*[90], goragalea, absurdoa. "Se da, en efecto, lo inexpresable" (Wittgenstein)... horiexek eta beste zenbait esperientzia adieraezinak ere bai, Leturiak *sentimentu* (136...) hitzaz adierazten nahi dizkigunak: "Biotzean dauka bere katadera, ta ark kilikatzen gaitu zorion-miñaren bidez, gure eragille biurtuz. Zorionaz eta atsekabez ulertzen du bakarrik; eta baloreak mallatzeko uste dugun baño gehiago lagunzten du neurri bakar horretaz" (136).

Ez jakitean murgiltzen gaituen jakite edo esperimentatze horiek, bi arpegi moneta bakarrean biltzen zaigu: Jainkoaren traszendentzia edo misterioan (traszendentzan gaituen inmanentzia, hobe), eta gizakiaren misterioan ere bai: "Neure burua arkitu nai dut, nere gaitzerako ba da ere, naizena sakon aztertu ta miatzeko" (23).

### 6.4. *Sinboloen hizkuntza*

Esperientzia horiek guztiak adierazteko, *sinboloak* baliagarriagoak izaten zaizkigu konzeptuak baino: "Paul Ricoeur ha analizado muy bien el mecanismo por el que el primer significado *literal* (del símbolo), sin

---

[88] TORRES QUEIRUGA, A., "La experiencia de Dios...:", o. a., 53. or.: "El"sentimiento de presencia' se ha prestado justamente muy bien para explicar la culminación mística de la experiencia religiosa".
[89] TORRES QUEIRUGA, A., "La experiencia de Dios...", o. a., 38. or. (89)
[90] GONZÁLEZ FAUS, J. I., El factor cristiano, o. a., 198. or.: "Lo que llamamos 'la Revelación' no es la comunicación teórica de una 'lista de verdades', sino la *autodonación de Dios*; ya comenzada, pero con la Promesa de una consumación plena. Con palabras 'de toda la vida': la fe no es un saber (aunque pueda implicar saberes) sino *Alianza* (o 'Testamento)".

quedar anulado, se convierte en el significante del segundo que se intenta expresar, y *que sólo así puede lograrse*. Porque la función simbólica no es un mero añadido, sino una necesidad del sentido segundo, que únicamente por su inmanencia en el otro puede hacerse presente. De ahí que sea recurso fundamental de la poesía, sobre todo de la que *busca expresar las últimas raíces de lo humano*, para las que no existen significantes directos. El clavo de Rosalía –'unha vez tiven un cravo, cravado no corazon'-... significa de entrada un objeto duro y punzante; pero el lector percibe en él, de manera inmediata, el otro significado, el verdadero: la honda pena inexpresable, la angustia abisal con la que lucha la poetisa"[91].

Esperientzia horiek ez dira, inoiz ere, Jainkoarenganaino iristen, eta ez dira behin-betikoak izaten ere[92]. Arrazoi bigaitik, batik bat: batetik, Jainkoa, izatekotan, beti 'bestea' delako (desproporzioa, excessus, analogia...), eta gizakia bera beti hazten (aldatzen) ari den (haz daitekeen) izakia delako, bestetik: "Un ser emergente que, por lo mismo y en lo más propiamente humano, vive en continua búsqueda y perenne tanteo. Dado que Dios se anuncia justamente en los últimos y radicales extremos de sentido, respecto de su descubrimiento no cabe esperar 'deducciones' completas y acabadas; tendrá que tratarse, por fuerza, de una 'lógica exploratoria', en cambio, persiguiendo 'las huellas del amado', sin la plena y maciza seguridad del encuentro inamovible, sino siempre tocando la ineliminable provisionalidad del tiempo"[93].

**Giza esperientziak adierazteko, *sinboloak* baliagarriagoak izaten zaizkigu konzeptuak baino.**

[91] TORRES QUEIRUGA, A., "La experiencia de Dios...", o. a., 49. or. (91)
[92] ESTRADA, J. A, La pregunta por Dios, o. a., 427. or. (92)
[93] Ibidem, 67. or.

Arrazoitik esperientziara igarobide dialektiko horretako urratsak garbi markatu dizkigu Txillardegik, Leturiaren sinesmeneranzko prozesuan:

- Lehendabiziko unean, Leturia, Jainkoaren bila dabil: "Zein da Zuganako bidea? Artan aurrera abiatuko naiz azkar, eta ez dut geiagotan zapasaltorik emango" (124), eta arrazoiaren *argiaz* baliatzen da: "Ikusi egin bear dut!!!" (124).

- Laster konturatzen da gizakiok ez dugula horretarako argi nahikorik izango, eta liluraz (117), intuizioaz (130), emozioaz (131), sentimentuaz (136)... baliatzen da.

- Makulu horiekin guztiokin ibilten hasi behar du: "Onela, gizonak berez ibilli bear ba du, dena argitzen da. Ibilketa bat da, ortaz, bizitza" (121), nahiz oinez hasteko datu guztiak menperatu ez: "Jauzi egin bear da beti asieran" (130).

- Ibiltze horretan, norabidearen fruituak kontrastatu behar ditugu bidegurutze bakoitzean (Jainkoarenganuntz? / ez Jainkoarenganuntz?): "artutako bidea 'a posteriori' baietsi ditelako konsolabide bakarrean" (127)... eta kontraste horren arabera (gizakiagoa ote naiz lehengoan baino?) hurrengo urratsa ematera ausartuko gara: "Por eso el saber religioso es frágil, dinámico, evolutivo y siempre precario"[94].

[94] ESTRADA, J. A, Imágenes de Dios, o. a., 46. or.

# VII. LETURIA-REN EGUNKARI EZKUTUA SINESMENAREN BIDEAN

*Leturia-ren egunkari ezkutua*-ko azken kapituluan, Txillardegik sinesmenaren ibilbideaz deskribapen nahiko zehaztua eskaintzen digu:

- Lehenik eta behin, posmoderno askoren iritziaren kontra, Leturiak Jainkoari buruzko galdera gizakiontzat:

    *a)* *oinarrizkoa* ez ezik, *geure-geurezkoa* dela onartzen du: "Nahi dutena esango dute 'gaikoiak', bañan istoriaren agiria dago or, eta erlijioko sorkari agertzen ari da gizona bein eta berriz mende guztietan zear, Jainkoaren bearra da gizonaren sustraia bera: gizona ukatu gabe, ezin diteke au uka... Gizonaren izanak eskatzen ditu nere ustez... larrimiña", baita

    b) guztiz *onuragarria* ere: "Auek bukatuko ba lira, edonolako atsekabe ta egarri guziak ase al ba litez, zein izango litzateke gizonaren eginkizuna?" (121);

- eta bigarrenik, galdera hori argitzeko ahaleginean, gizakiok *arrazoiaren mugekin* topatzen gara: "Inora ez darama adimentuak, bere eziña adiraztera baizik" (136). "Lojika utsaz autatzea Jainkoari bide-dagokio, ta alperrik saiatzen da gizona Jainkoaren egiten" (127).

Bizitzaren zentzuari buruzko galderei erantzun zihurra aurkitzeko *ezina* zaigu gizakioi[95], batetik, gizakien erabaki guztiak *kontestualizaturik* daudelako: "Arabia'n jaiotzen diranak mahomarrak dira ia bereizkuntzraik gabe; berebat, budista Ceilan'en jaioak, eta katoliku Irlanda'tarrak" (125);

---

[95] ESTRADA, J. A., La pregunta por Dios, o. a., 378.-379. or: "El problema es que la determinación de una experiencia como vivencia del Absoluto siempre es personal, y que la articulación entre la inmanencia y la trascendencia, en la línea de Agustín hasta Hegel, es siempre interpretación subjetiva y sociocultural sin que podamos eliminar la proyección". (95)

eta, bestetik, galdera filosofikoei zein erlijiosoei erantzuntzeko, "*postuladuak edo hipotesiak*" ere (sinesmenaren mota bat) behar direlako: "Berdintsu gertatzen da, gañera, jakintza guztietan. Euclides'en postuladua ukatuta beste bidetatik abiatzen ba da Matematika, egia egokiera iristen da ere. Filosofian oñarri batetik ala bestetik, asi, ta toki diferentetara iristen da, ta burubide aundiz eta bidez beti. Artean berdin: aro batean jaio diranak ez dute leenagokoen eran ikusten egitekoa, eta arlo onetan batez ere ala bear da" (127).

Bereiztu behar ditugu, beraz, *gutxi asko*, ezagutza 'zientifikoa' eta ezagutza 'erlijiosoa' edota 'filosofiakoa'. Gutxi asko, diot, zeren, egia bada, zientzia mailan, arrazoiak zeresan *osoa* duela, gaur egunean zientzia 'jakitean' ere, errelatibotasuna gero eta onartuago baitago[96]. Dena dela, argi dago, azken gelderez aritzerakoan, "que toda verdad y toda acción implica un medio y una subjetividad humana"[97], eta halaz ere,"hay preguntas últimas que no podemos evitar, aunque seamos conscientes del carácter penúltimo de las respuestas que ofrecemos"[98]. Leturiaren hitzez esateko: "Absolutuak zuzendu bear du nere bizitza: zer balio izan dezake bestela honek? (123), baina, azkenean, "oso erlatibuak dira absolutuak. Absolutorik ez dagoela esan daiteke egiaz: ez dago honetan geiegikeriarik" (126).

- Hirugarrenik, kinka horretan: "Nola jakin diteke zergatik maite den?" (55), esaterako, gizakia 'buru' bakarrik ez denez, arrazoiaz gain, beste giza ahalbideren guztiez baliatu beharra dago[99]: kontenplazio edo inmertsioa, inplikazio edo konpromisoa, ekintza edo sentimenduak, lilurapena, sufrimendua, kupida, otoitza..: "Baliogo-eztabaidak dira bakarrik gizonetan. Besterik diotsanak ez daki ezer gizonaz. Norabait goaz guztiak, beti zerbait probatzera; ots: gehiago darabilkigu beretan biotza burua baiño" (56).

---

[96] ESTRADA, J. A., La pregunta por Dios, o. a., 384.-385. or. (96)
[97] SARTRE, J. P. in "El existencialismo es un humanismo".
[98] ESTRADA, J. A., La pregunta por Dios, o. a., 382. or.
[99] ESTRADA, J. A, La pregunta por Dios, o. a, 44. or. : "El saber religioso no es racionalista, se dirige tanto a la mente como al corazón, es susceptible de una crítica ideológica y también de una valoración reactiva con inevitables componentes emocionales".

- Horrek ez du adierazten, inolaz ere, oinarrizko galderen aurrean arrazoia alboratu behar dugunik. Alderantziz. Adierazten diguna hauxe da:

  - Gizakiengan dirauten sakoneko kezkaz ("un sabor que tengo en el alma me deprime" [Neruda]), 'egia osoa' eskuratzea ezinezko zaigula (osoa ez bada, egia da?): "Nunca podemos demostrar que hemos llegado a lo último o a lo Absoluto, caso de que exista"[100].

  - Arrazoia ez zaigula huts-hutsik nagusitzen, beti beste giza ahaldibe, sentimendu edo gaitasun batzurekin nahastu egiten zaigula: "Fedezko aitorrak egiten ditugu guziok, baita konturatu ez geran askotan ere. Ezin egizta diteke ezer ere azken-azken iturburuuetaraño, nai ta naiez topatzen da nunbait postuladuakin" (127)[101].
  - Hori dela eta, 'egia'ra hulbiltzerakoan, garrantzizkoa zaigula *zein ustekizun* edo *baloretik* abiatzen garen ezagutzea "zeren egiak ez duen gizonagan agintzen, baloreak baizik. Eta balore auek ez dira adimenduz aukeratzen, joera, azikuntza, gizaroa, biotza, ta beste hamaika eragiñen bidez baizik" (125)[102].

  - Horrek ez du esan nahi, a) "que todas las cosmovisiones son igualmente razonables, ni creíbles ni pertinentes"[103]; ezta b) sinesmen hautaketak ez ditugula arrazoitik zehar iragarazi behar ere: "El saber religioso no puede contradecir las leyes elementales de la ciencia y de la lógica racional, so pena de irracionalidad (como pretendía el 'credo quia absurdum' de

---

[100] ESTRADA, J. A., Imágenes de Dios, o. a ., 45. or. La pregunta por DIOS, o. a., 46. or.: "La ciencia no puede responder a todas las preguntas humanas, más aún, los problemas existenciales fundamentales persisten una vez que hubieramos resuelto todos los problemas científicos, como observó bien Wittgenstein".

[101] ESTRADA, J. A., Imágenes de Dios, o. a., 44. or.: "En cuanto animal que se hace preguntas, el ser humano siempre procede desde convicciones no demostrables y certezas subjetivas".

[102] "Ni neu naiz gehi nire inguruabarrak" (Ortega y Gasset). ESTRADA, J. A., Imágenes de Dios, o. a., 44. or.: "Ante el fenómeno religioso nadie es neutral, ya que estamos condicionados por nuestra biografía personal y colectiva. En realidad, siempre estamos remitidos a un imaginario de sentido con raíces míticas, simbólicas y afectivas, que no sólo subyacen a las religiones sino también a las cosmovisiones filosóficas e incluso científicas". (102)

[103] ESTRADA, J. A., Imágenes de Dios, o. a., 45. or.

Tertuliano), pero no se queda en la razón porque busca una respuesta integral a las necesidades humanas, que desborda a la misma razón"[104]. Adierazten duena zera da: sinesmen hautaketan, kontuan hartzekoa zaigula zein den giza ahalbideak *ondoen* eta *sakonkien* betetzen dituena: "Las creencias religiosas son indemostrables, pero pueden ser más o menos convincentes en cuanto que sus pretensiones de verdad aparecen creíbles, plausibles y racionales, es decir, compatibles con los otros saberes. Si además son fecundas en cuanto motivadoras e inspiradores de comportamientos humanos deseables y racionalmente defendibles, entonces podrían ser no sólo válidas sino recomendables"[105].

### • *Arrazoiaz beste bidea*

> *"La creencia religiosa como la increencia, en su versión agnóstica o atea, responden a un proceso existencial y no se reducen a la aceptación o no de una determinada prueba o justificación de la existencia de Dios". (J. A. Estrada)*[106]

Bizitzaren zentzua dela eta, adimenduaren mugez konturatu eta gero, noru(ntz) jo?: "Illunpe batetik illunpe batera dijoan bidazti itsua naiz" (132); eta *sentimendua*ren (oinarrizko esperientziaren) makuluaz baliatuko bagina? "Nora, berriz, sentimentuak?" (136).

Arrazoi bideak ez gaitu Jainkoarenganaino eramaten, ezta, seguru asko, sentimendu bideak ere: "Ez dago, agiri denez, guzizko aukerapenik" (127). Baina sendimenduak zertxobait aurrerago bagaramatza? edo arrazoi bideak erakusten ez dizkiguten argi-printza batzuk sentiarazten badizkigu?: "Egiarako bidea argitzeko argizari bat daukagu; eta baso itoa ta piztiduna da igaro bear dugun oiana. Alperrikakoa ez-bañan exkaxa zaigu argizagia, Geiegi altxatzen ba gera, zugazti-puska zabalagoa ikusten dugu, egiazki, bañan illunpe ikaragarrian naasia. Altxatzen ez ba gera,

---

[104] ESTRADA, J. A., La pregunta sobre Dios, o. a., 44. or.
[105] ESTRADA, J. A., Imágenes de Dios..., o. a., 45.-46. or.
[106] ESTRADA, J. A., Imágenes de Dios..., o. a., 44. or.

berriz, obeto dakusagu; baña zer ote dago beste aldean? Urbildik argitzen du bakarrik adimenaren zuziak; urrutitik illunpe beltzean itzaltzen da piskanaka, osto bat islatu ere gabe. Bide bat aukeratu ezkero, laguntza joria dugu gure argitxoa; edo inguruak ezagutzeko egokia... Munduaren guzitasuna batera argitzeko, ziztriñegia" (133-134).

Arrazoiaren eta sendimenduaren arteko hautaketa ez da zorizko joko bat. Ez da bata ala bestea; bata gehi bestea, gehi bestea, gehi... baizik. Arrazoi, motibo, esperientzia, sentimendu pilaketa bat: "Gu zeru-lurreko erdian jarrita aukeratu nai ba du adimentuak, geure burua eskeñi nai du berriz sentimentuak, besteentzat gu laguntza biurtuz. Arek berak aukeratu nai du adimentuak; besteak bera aukeratzea sentimentuak. Guztiz diferente dira bada beien jokaerak" (137).

Planteamendu horren analisia egiten digu Leturiak (ez guztiz zorrotza, nere ustez; baina ezer ez baino hobe):

- Aurrenik eta behin, argitu behar dugu, Leturiak "sentimenduaz" aritzen denean, existentziaslisten ildoan, arrazoiaz haratagoko giza *esperientzia orokorraz,* hots, existentzia antziaz, emozioaz, maitasunaz eta abar ari dela: "El amor se aprende desde la emoción"[107].

- Sentimenduak *zuzenago* erlazionatzen gaitu Jainkoarekin adimenduak baino. Adimenduak maila berdin samarrean (berdinean, ahal izanez gero) jartzen ditu adimendua eta aditutakoa. Horretan saiatzen da, behinik behin. Baina Jainkoarekiko erlazioa, ezer izatekotan, ezin daiteke berdinen artekoa izan. Sakonean 'desproporzioa' du oinarri (Heidegger, Riceur): "Sentimenduak ez du aditzen, *eskatzen* baizik" (136).[108]

- Jainkoaren eta gizakien arteko erlazioa, ezer izatekotan, ezin daiteke *berdinen* artekoa izan (autonomoa eta librea izanda ere).

---

[107] LANDANERO, L., El Cultural, 23-29.05.01.

[108] CORTAZAR, J., Cartas, Alfaguara, Madrid, 2002, 82. or.: "Nunca amé demasiado el racionalismo frío y absoluto; ahora lo detesto profundamente. Creo que en la intuición, en valores emotivos, en la poesía de todo acto intensamente vivido, se esconden las fuentes últimas de la verdad". TAPIES, A., XLSemanal,, o. a., 29. or.: "El arte (automático) es fruto de la madurez, uno utiliza menos la razón y más el corazón".

Dinamika horretan, gizakiek (pedagogia prozesuak onartuta ere), sakonean, ezin dezake, iniziatiba eraman (cum-prehendo), sinestunak 'beste' batek aukeratua dela ohartu behar baitu: "Hau da benetako (sinesmena) maitasuna, ez guk Jainkoari izan diogun maitasuna, berak guri izan diguna baizik" (1 Jn 4 10). "Eta zer da maitasuna? Nork bere burua eman, nor bere buruaz aaztu, nor bere burutik ateratzea. Beste batek gu aukeratzen uztea" (136).

- Aukeratua izatearen esperientzia hobeto omen dagokio giza izaera sakonari, gizaki dominatzaile zein hartzailearena baino: "Gu zeru-lurreko erdian jarrita aukeratu nai ba du adimentuak, geure burua eskañi nai du berriz sentimentuak, besteentzat gu laguntza biurtuz. Arek berak aukeratu nai du adimentuak; besteak bera aukeratzea sentimentuak. Guztiz diferente dira bada bien jokaerak. Bañan ustekabeak eta zoriak gidatu ba naute orain arte, zein zaio gizonari bietan egokiena? Jainkotzat artzen bide-gaitu lenengoak; sorkaritzat, ordea, bigarrenak. Au dago, ortaz, beste baño sustraizko egiatik bertago. Eta agitz gehiago betetzen gaitu maite-legeak, gure adimentu utsak egiaren billa alperrik nekatzeak baño... Zergatik au? Nik aukeratu ez-baña, ni aukeratzea gertatu zaidalako" (137). Unamunok ere sentitu zuen esperientzia bera: «Y es que al Dios vivo, al Dios humano no se llega por el camino de la razón, sino por camino de amor y sufrimiento. La razón nos aparta más bien de El. No es posible conocerle para luego amarle; hay que empezar por amarle, por anhelarle, por tener hambre de El, antes de conocerle» (*Del sentimiento trágico de la vida*).

- Dinamika horrek ez gaitu bakarrik Jainkoaren misteriora hurbil(ago)tzen, gizakien misteriora ere bai: "'Zein da nere serbitzaria' ez-baña 'zeñen serbitzaria naiz ni' galdetu bear dut. Onatx salbidea" (137).

- Sentimenduaz aritzen garenean, sakonean, *maitasunaz* aritzen gara: "Obe da maitatzea ezaguztea baño. Obea ta egokiagoa. Eta, egia? Osorik ez daukat nik iristerik. Eta gutxi al da, izan ere, argizagi baten bidez Jainkoa badagoena jakitea?" (139). Horren konbentzituta dago Leturia maitasunaren abantailez ezen,

sinplekiegi nonbait, soilik maitasun bideari jarraitzean indar guztiak pilatzen dituen: "Buruari uko egiñez, bidean abiatzen naiz azkenik. Gora biotza!" (139).

Jauzi horrek ez du adierazten Jainkoaren edo sinesmenaren epaia bihotz soilari utzi behar diogunik. Gizakiok, sakonean, uhal askodun koadriga daramagu (Platon *dixi*) eta uhal guztiei zor diegu arreta[109]. Bidaiaren kriterioa gero eta aurrerago joatea da, gero eta sakonago, gero eta gizakiago... bai immanentziaren, bai autrotraszendentziaren aldera, dela arrazoiaren, dela sentimenduaren laguntzaz... Egia da azken helburua arrapaezina zaigula: "deika atzean ni... eta zuk iñes", baina gero eta aurrerago eta osoago sentitzen badugu, orduan eta 'agiarantz' goazela onartzeko gertuago egongo gara: "Guztiak niri or oiaz / millaka eder Zutzaz kontatzen. / Eta zauri barriz joaz / il-ainik nabe lagaten / totel deustenaz esan-mesaten" (San Joan Gurutzekoa).

[109] BARRAL, M.ª J., profesora de Anatomía y Embriología Humanas de la Universidad de Zaragoza. El País, 06.03.21: "Ahora se sabe que (en el ser humano) hay más inteligencias que la meramente racional e incluso se habla de la importancia que tiene la inteligencia emocional". (109)

# VIII. KRISTAU EXISTENTZIALISMOA

## *8.1. Ahoz zein buruz sinestea vs. Jesusen esperientziara hurbiltzea*

Txillardegik *kristau* existentzialismoaren uhinean sartzen du *Leturiaren egunkari ezkutua*, eta, uhin horretan, Unamuno lagun izan zuela aitortzen digu: "*Leturia* idatzi nuenean, oraindik kristau existentzialistatzat nuen neure burua. Unamunoren bidez egin nuen batez ere existentzialismorako bidea"[110]. Egia da *Leturiaren* existentzialismoa kristau existentzialismoa dela? Unamuno *kristau* existentzialista izan ei zen?

Nik ez dut *Leturia*ren existentzialismoa kristaua denik atzematen. Jesukristo izena ez da eleberri osoan agertzen, ezta Jesusen *aipurik* ere, ez zuzen, ezta zeharka ere. Kristau kutsurik egotekotan guztiz modu diluituan legoke, mendebaldar kultura kristautasunaz mamitua dagoen [egon den?] heinean. Nik zerbait konkretuago nahi nuke kristau existentzialismoaz mintzatu ahal izaterko. Esperimentatu ote zuen Jesusek, inoiz ere, existentziaren tentsiorik? Eta, baiezkoan, zelan eraman zuen? Badago Jesusen eta Leturiaren arteko existentzia minari begirako parekotasunik?

**Egia da *Leturiaren* existentzialismoa kristau existentzialismoa dela? Unamuno *kristau* existentzialista izan ei zen?**

[110] TXILLARDEGI, in Hitza hitz, o. a., 131. or. Berria, 07.10.06: "Hasierako eragin nagusia Unamuno izan zen. Jean-Paul Sartrek gero izan zuen eragin handiagoa nigan, Frantzain bizi izan nintzen garaian".

Kristau teologoek oztopo handiak izaten dituzte Jesuskristoren jainkotasunaren eta gizatasunaren elkarkeka argitzeko orduan, eta, oraintsu arte, Kristoren jainkotasuna defenditzerakoan, Jesusen gizatasunaren ondorioak zapuztu edo baztertu egin ohi dituzte. Dialektika horretan, Jesukrisoren *logosaren* (ezagutza = esentzia) eta Jesusen pathos edo *existenziaren* arteko tirabirak azaltzen zaizkigu. Zelan uztartu Jainkoa dena *dakien* Jesus bere burua Jainkoak guztiz lagata sentitu zuen gurutziltzatuarekin? Zelan uztartu *jakitea* eta *sinestea*? Zelan lotu eskolastika Barri Onarekin?

Gaur egunean, "la teología ha de empezar por ceder la palabra a la exégesis... como testimonio de que este tema no puede ser contestado por una deducción *a priori*". Ildo horretan, beharrezkoa zaigu *Jesusen esperientziari* (existentziari) protagonismoa ematea: "El anuncio que Jesús hace sobre el hombre utópico o *teleios...* no excluye la *apuesta* por éste, ni las imágenes erróneas o aproximadas de él, ni la consiguiente evolución en las formas de concretarlo, ni la presencia de momentos privilegiados, como chispazos o experiencias de particular intensidad que trascienden y enriquecen el horizonte de su conciencia habitual"[111]. Hori dela eta, Jesusen *existentzia* gero eta protagonismo nabariagoa hartzen ari da kristau sinestunen artean. Giza esperientziaren edota pedagogiaren ikuspuntutik, zein zaigu eraginkorragoa: sinesmenaren esentzia zein *logos-a* ala sinestunen esperientzia (Jesukristorena barne) zein *pathos-a*? Eskolastikoek esentziari eman zioten lehentasuna, baina Heidegger-ek salatu zuen bezala: "Ante este Dios, el hombre no puede rezarle ni hacerle sacrificios. Ante la *causa sui* no puede caer temeroso de rodillas, así como tampoco puede tocar instrumentos ni bailar ante este Dios"[112]. Existentzialistek, ostera, esperientziari eman zioten lehentasuna: "Ser poeta en una época de penuria significa reparar cantando en las huellas de los dioses huidos. Por eso el poeta dice lo santo en la época de la noche del mundo"[113].

---

[111] GONZÁLEZ FAUS, J. I., La humanidad nueva, II, Actualidad Teológica Española, 3º edición, 1974, 601. or.
[112] Identität und Differenz, Pfullingen, 1957, 153. or.
[113] HEIDEGGER, M., Holzwege, 250.-251. or.

Kontestu horretan, *kristau existentzialismoa,* ezer izatekoan, Jesukristoren *biziaren esperientzia* berreraiki edota bersentitzea da: a) Aita baten *hutsunea*: "Adoratu Jauna, zeure Jainkoa, eta bera bakarrik gurtu"[114], eta b) *etsipenak* jotzen gaitunean: "Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu?" (Mk 15, 34), arrazoiaz haratagoko *konfiantza (iluna, agian)*: "Aita, zure eskuetan jartzen dut bizia" (Luk 23, 46)[115], edota proportziorik gabeko *esperantza* ere: "Oraingo neke-lanak ezer gutxi dira gero guregan azalduko den aintzaren aldean" (Erm, 8, 18); c) ondamendiak direla eta, geure buruarenganako biltzearen ordez ("Sálvese quien pueda"), hurkoarenganako kupida eradaltzailea (Samariar ona. Lk, 10, 25 eta j.), d) misterioaren aurrean ("Dios es lo que él se quiere"[116]), bertan behera uztearen aurrean, gaueko erromesen itsumustukako ibilkera, e) arrazoizko sinesmeraren monopolioaren ordez, bihotzeko sinesmena: "Zure ondoan duzu hitza: zeure ahoan eta zeure bihotzean. Hitz hori da, guk hots dugun sinesmenaren berria. Izan ere, zeure ahoz aitortzen baduzu Jesus Jauna dela; eta zeure bihotzean sinesten baduzu Jainkoak hilen artetik piztu zuela, salbatuko zara. Bihotzez sinesteak zuzentasuna dakarkigu, eta ahoz aitortzeak, salbamena" (Er 10 8b-10), f) bizitzaren absurdoaren (zentzurik ezearen) ordez, askatasun eta justizia erreinu baten alde proiektu mugatuetan gogotsu sartzea...

Egia da esperientzia horietan guztiotan jarrera ezberdinak ageri daitezkeela, baina, niri behintzat, ez zait iruditzen Jesusen esperientziaren arrastro zuzenik aurki dezakegukeenik *Leturiaren egunkari eskutua* eleberrian. *Leturia*n agertzen zaigun giza zein erlijio existentzialismoa filosofo klasiko edo modernoen existentzialismo izan daiteke, inonkik inora ez Jesukristorena, ezta, beraz, kristau existentzialismoa. Era berean, egia da ere, kristau sinesmenaren arabera, Jesukristori ez zaiola gizakiari dagokion ezer urrun geratzen, baino ikuspuntu horrek ez du zer ikusirik orain guri dagokigun gaiarekin. San Pabloren esaldi hori eskatologia ikuspuntutik esana da, eta gu, kristau existentzialismoaz jarduterakoan, antropologia edo historia ikuspuntutik aritzen gara.

---

[114] Mat 4 10. G. Marcel: "Dios tu eres el único que posees el secreto de lo que soy y de lo que puedo llegar a ser".

[115] Bitxia da Jesusen esperientzia bi horiek ebangelio edota tradizio diferenteetan agertzen direla.

[116] Gurutzeko San Joan? Ikus in Testigos de la experiencia de la fe, Narcea, Madrid, 2001, 154. or.: GURUTZEKO, J.: "Una de las grandes mercedes que en esta vida hace Dios a un alma, por vía de paso, es darle a entender y sentir tan absolutamente de Dios, que entiende claro que no se puede entender y sentir del todo". (116)

## 8.2. Heriotza

> *"Hilen Egoitzan ez dago zu goresterik, hildakoak ezin zaituzte zu laudatu, hilobiratuek ezin zure leialtasunean itxaron. Biziek, biziek bakarrik, zaituzte goresten". Is 38 18-19.*

Existentzian bilduta, existentzialisten tragedia heriotza da: "El hombre es un ser para la muerte" (Heidegger). "El hombre es un ser para la nada" (Sartre). "¿En qué se convierten los muertos?" (Marcel). "No quiero morirme del todo y quiero saber si he de morirme o no definitivamente. Y si no muero, ¿que será de mí?" (Unamuno)[117].

Kristau teologoek, gizakien hilezkortasuna azaltzeko, mende luzeetan, Platonen eta Aristotelen ereduak bereganatu zituzten, Bibliako azalpen edo esperientziaren aurretik![118]. Greziar filosofoen arabera, gizakia osagarri biren batasuna da: hilkorra bat: gorputza edo materia, hilezkorra bestea: arima edo forma: "En el fondo de esa interpretación late un presupuesto que, por tradicional, no se cuestiona y se da como obvio: *la inmortalidad natural del alma humana*". Baina eredu horrek, filosofiko hutsa izateaz gain, gero eta jarraitzaile gutxiago ditu: "Resulta muy difícil comprender cómo un ser que nace no va a estar destinado naturalmente a la muerte; algo que, por lo demás, confirma la terrible evidencia del cadaver: lo evidente es la muerte; la inmortalidad es su preciosa pero oscura y difícil posibilidad"[119]. "Absolutu-malla ematen dio eriotzak biziari, eta alde onetatik, bere balioa txikitu ez-baña goratzen duela uste dut" (128).

Existentzialistei esker (Nietzsche burua delarik), sinestunak amets esentzialistatik esnatu eta existentzian 'egotziak' izan gara[120]. Gaurko

---

[117] MARIAS, J., Blanco y Negro, enero de 1939: "Unamuno ha dedicado su vida y su obra entera a este problema de la inmortalidad".

[118] BALTASAR, von, H. U., Teodramatik IV, Eissiedeln, 1983, 278.-279. or. "Hablando de los Padres, distingue justamente don tipos de pensamiento: el ontológico, que depende de Platón, y el teológico, que se le opone: sólo Dios es inmortal; la creatura, sólo por participación en la *athanasía* de Dios". (118)

[119] TORRES QUEIRUGA, A., ¿Qué queremos decir cuando decimos 'infierno'?, Sal Terrae, Santander, 1995, 72.-73. or. (119)

[120] MARIAS, J., Blanco y Negro, o. a.: "Don Miguel de Unamuno se pasó su vida terrenal poniéndonos obstinadamente ante los ojos y dentro del alma la tremenda cuestión, haciéndonos sentir su mordedura en el fondo de la persona, devolviéndonos así a nosotros mismos".

antropologoen arabera, "en el hombre no se da esa realidad independiente del cuerpo llamada 'alma', como tampoco se da un cuerpo puramente mecánico o que se mueve inconscientemente. Ambas cosas son abstracciones. Real es únicamente la *unidad* de ese ser vivo llamado hombre, que se *mueve* a sí mismo y se *comporta* ante su propio mundo"[121]. Gizakia, beraz, ez da "un compuesto de dos materiales (componentes) completamente distintos", baizik eta materiaz egindako izaki bat, materia hutsa ez diren errealitateez (kontzientzia, erantzunkizuna, historia edota errealitateari zentzua ematea...) hornitu eta baliatzeko gauza dena: "emergiendo de la materia, el hombre ha trascendido la materia sin abandonarla"[122]. Espiritu eta materia: noiztik noizera guztiz aldatzen zaigun materia, gu geu (espiritua?) guztiz aldatu gabe.

Definizioak definizio, argi dago: a) gizakiak ez garela guztiz determinatuta sentitzen, egiten / egiten ez dugunaren *erantzule* baizik; b) ongirako zein gaizkirako *nahiko* aske edo irekia garela; c) kontradiktorioak izaten zaizkigun bi sentipen esperimentatzen ditugula: mugatutasuna: gaitz edo ahuldade fisikoak zein sikikoak..., eta edertasunerako betetasunik eza[123]: "Betetasuna bear dut, betetasun geldia gañera. Urduri dabillena laister nekatzen da. Mundu honetan ez daukagu bada asetzerik" (124); d) gizakien 'betetasuna' ez dela ez diruan, ez potere fisikoan oinarritzen (maila minimoa beharrezkoa bazaigu ere); e) gizakien betetatsuna, modu batera zein bestetara, inguruko pertsonekin (aita, ama, semealabak, lagunak...), maitasun edota solidadearekin lotuta dagola: "La moderna antropología emplea una terminología que intencionalmente deja atrás la diferencia de lo corporal y lo anímico, hablando más bien del 'comportamiento' así de los animales como del hombre".

**Kristau teologoek, gizakien hilezkortasuna azaltzeko, mende luzeetan, Platonen eta Aristotelen ereduak bereganatu zituzten, Bibliako azalpen edo esperientziaren aurretik.**

---

[121] PANNENBERG, W., Was ist der Mensch? Die anthropologie der Gegenwart im Lichte der Theologie, Gotinga,.1981, 35. or.

[122] GONZÁLEZ FAUS, J. I., La libertad de hijos, o. a., 7. or. Hori dela eta, gizakiari ondoen dagozkion definizioak dualak izaten dira: animal rationale (Aristoteles), espiritu sorgortua edota materia gainditua (gaindikorgarria?) (Rahner), gizartekotasun ez-gizartekoia (Kant).

[123] BOFF, L., San Francisco de Asís. Ternura y Vigor, o. a., 25. or. (123)

Kontetsu horretan, sinestunok (existentzialisten kumeok, batik bat) gizakien 'berpiztuera' perspektiba berri batetik aitor dezakegu:

